

GAIA: JA-LING • ELKARRIZKETA: JURJO TORRES • ESPERIENTZIA:
EGUZKI EKLIPSEEN ATZETIK • EKARPENA: PALESTINA ETA
ISRAEL • GALDEIDAZUE: LUIS ARANALDE • ARANTXA ITURBE

hh
hik hasi


112

4 EURO • 2006KO AZAROA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA




BERRIAK

**Asko ikasita itzuli gara
Italiako Reggio Emiliatik**




Xabier eta Martin Etxeberria
Jose Belmonte



Ana Urkiza
Jokin Mitzelena



Xabier Mendiguren
Patxi Gallego



Anjel Lertxundi
Antton Olariaga

Beti dago lagun berriak egiteko aukera: ezpatak jaten dituen fakirra,
urrutiko lurraldeak ezagutzen dituen mutiko ijtoa,
piratek bahitu eta onik ateratako neska edo
furgoneta batean ibiltari bizi den mutikoa.


aurkibidea



8
gaia

JA-LING

Euskal Herrian bizi dugun kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean egiteko asko daukagu. Elkar errespetatuz denok aberastuko gara. Baina nola lortu hori? Itziar Aramaio eta Ima Ortega horretan dabiltza JA-LING proiektuarekin eta horren berri ematen digute.



16
elkarrizketa

JURJO TORRES

La desmotivación del profesorado liburua da argitaratu duen azkena. Haatik, A Coruñako Unibertsitateko katedradora motibaturik aritu zen irakasleen funtzioez hizketan Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen V. Jardunaldian.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

JA-LING, ETORKINAK ETA GU BATZEN

16 elkarrizketa
JURJO TORRES

24 esperientzia
Sestaotik Madril eta Turkiara eguzki eklipseen atzetik
Sestaoko Angela Figuera BHI

26 esperientzia
Euskarazko lehen trantsizio gela Nafarroan
Iruñeko Hegoalde ikastola

32 ekarpena
Mira Dabit eta Jossi Bertal: "Oso garrantzitsua da aktibo izatea, ez soilik gatazka jakinetan, orokorrean baizik"

34 galdeidazue
Luis Aranalde

37 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!
Irakasleak asko egin dezake
Helena Baraibar eta Kristina Boan

42 Atzeko atetik
Arantxa Iturbe

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño, Matilde Sainz eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graffk. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Euskal Herriatik Reggio Emiliara joandako taldea Loris Malaguzzi Nazioarteko Zentroan (hik hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-X-20). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzeku. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

azaroa

Hezkuntzak herri identitatean eta kohesioan lagundu behar du



Gure hezkuntza guztiz zatituta, banatuta dago, eta batzuetan bazterketara bideratzen du. Nola uler liteke gure herriak jasaten duen zatiketa? Egoera horrek laguntzen al du herritarren hezkuntza eskubideak bermatzen? Lagungarri al da desberdintasunak orekatzeko?

Hainbatetan hezkuntzak eraldatzailea izan behar duela entzun dugu, bizi dugun gizartean integratzeko baliobehar duela eta herritarren desberdintasunen orekatzaila behar duela izan. Hau da, gizartea kohesionatzea dela hezkuntzaren egitekorik garrantzitsuenetakoa.

Gure hezkuntzari so egitean oso banatuta dagoela dakusagu. Lurraldearen zatiketari sareen arteko banaketa gehitzen zaio, horri hezkuntz ereduaren hautaketa, kulturaren transmisio desorekatua, eskola eta unibertsitatearen arteko hesia...

Aldaketa handiak ematen ari dira munduan hainbat arlotan, eta baita arlo kulturalen ere. Etorkizunaren aberastasuna, kulturantzatasunaren globalizazioan ikusten dugu. Eta horren aldeko apustua da geurea. Zer egin dezakegu guk herri moduan? Zein izan liteke gure ekarpena?

Herri gisa hausnarketa propioa egiteko beharra ikusi zuen Nazio Garapen Biltzarreko hezkuntza batzordeak. Eta deialdi zabala egin ondoren, Euskal Herria aintzat hartzen duten hainbat pertsona elkartu izan da, urte ertaineko hausnarketaren ondoren oinarritzko akordioa iritsi direlarik.

Orain, hain alor desberdineko (ikasle, guraso, hezitzaile, langile, eskola, aisia, unibertsitatea...) kideen artean lortu duten adostasuna gizarte osoari eskaintzen diote, herri eztabaibada zabala sor dadin.

Akordioan, alde berritzaileak eskaintzen dira, besteak beste: euskal herritarren hezkuntza eskubideak eta Euskal Herriko hezkuntza publikoaren kontzeptua. Era berean, ildo horiekin bat egiten duten heziguneeen artean Hezkuntza Publikoaren Elkar-gunea sortzea proposatzen da.

Eskertzekoa da egin den ahalegina; oso abiapuntu desberdineko eragileak, eztabaidaren bidez, oinarritzko puntu batzuk adosteko gai izan baitira.

Erakunde edo hezkuntza eragile bakoitzak izango du bere hezkuntza proiektua, baina akordioaren bertutea eta indarra sorburu desberdinak norabide berean jartzean datza.

Posible al da herri proiektuaz edo kohesioaz hitz egitea bi hezkuntz komunitate, euskara ezagutzen dutenena eta ez dutenena, sortzen baditugu?

Hitz egin al liteke normalizazioaz edota integrazioaz neska-mutil guztiek ez badute gure kultura ezagutzeko aukerarik?

Zer ekarpen egin genezake gure hezkuntza antolaketa ez badago herritarren beharretara egokitua?

Hortxe dugu eztabaida sozialerako gonbidapena. Erantzun dezagun!

kronika

Ikas-Bi eskola publikoko ikasleen guraso elkarteak euskarazko oren kopurua gehitzeko eskaera egin du. Eskola elebidunetan 12 ordu dira euskaraz eta beste hainbeste frantsesez.

Akademia Ikuskaritzak erantzundakoaren arabera, “esperientzia modura, zenbait ikastetxetan euskarazko oren kopurura 18ra igotzea posible da, baina ez gehiago”.

Mementoz Ikas-Bik ez du murgiltze eredurik eskatzen, hots, dena euskaraz eskaintzea, baina ikastolek hori eskaintzen dutelarik, ez dute ulertzen sare publikoan aukera hori ez egotea.

Horrekin batera, Ikas-Bik aurtengo ikasturteko datuak eman ditu, eta eredu elebidunean 3.500 haur hasi direla azpimarratu dute. Irakasle kopurua ere igo egin da: iaz 99 irakasle aritu ziren euskaraz irakasten eta aurten 107,5. Eredu elebidunean matrikulatzen den haur kopurua emendatuz doa eta horretan EEPrekiko lankidetzak eragina izan omen du.



Euskararen Legea aldatu nahi dute herritarrek, baina gobernuak ez

Nafarroako Gobernuak berriki egin duen inkesta baten arabera, Iruñerriko eremu ez euskaldunean bizi diren herritarren % 72k eremu mistoan egon nahi dute. Egun indarrean dagoen Euskararen Legea aldatzeko eskatzen dute, horrela euren herrietako eskola publikoetan D ereduan ikasteko aukera izan dezaten. Izan ere, orain zonalde ez euskaldunean kokatuta daudenez, ez dute aukera hori.

Egunero-egunero Noain, Imarkoain eta Eloko 17 haurrek autobusa hartu eta bost kilometro egiten dituzte Iruñeko Hegoalde ikastolara joateko. Autobusa gurasoek antolatzen dute. Beste aukera Zizur Txikiko San Fermin ikastolara joatea da. Noaingo Udalak haur horien autobusaren kostuaren erdia ordaintzen du (7.000 euro). Aran-

guren Udalak oso-osorik ordaintzen du autobusa. Galarko haurrak, berriz, Zizur Nagusira joaten dira.

Zonalde mistora igarotzeko Euskararen Legea aldatu beharra dago. Hori Parlamentuak onartu behar du, eta ez da erraza. Izan ere, Miguel Sanzek berretsi du ez duela legea aldatzeko inolako intentziorik, nahiz eta herritarren nahia hori izan.

Gainerako alderdi politikoek ez dute iritzi bera. PSN eta CDN legea aldatzearen alde agertu dira, nahiz eta ez duten adierazi zein formula proposatzen duten. IUN-NBEk lege proposamen bat aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan Iruñerriko udalerrri guztiak eremu mistoan sartzeko. 2005ean lege proposamen bera aurkeztu zuen, baina orduan ez zuen aurrera egin UPN, CDN eta PSN alderdiek kontrako botoa eman zutelako. Batzarrek legea sakonki aldatzeko beharra azpimarratu du, “inkestak ederki islatzen duelako gizar-teak euskarari buruz duen iritzia”. Aralarrek dio legea moldatzea ez dela nahikoa eta lege berria behar dela. Euskara lehiarako ez erabiltzeko eskatu dio Sanzi, “guztion ondarea delako eta guztioi dagokigulako hura indartzea”. Batasunak ere lege berria behar dela uste du, eta salatu du “Europa osoan bere hizkuntzaren kontrako legeak onartzen dituen gobernu bakarra dela Nafarroakoa”.

Haurrak helduari sinestuz ikasten du. Zalantza sineste horren ondoren dator. Ludwig Wittgenstein



Ikastetxe publikoetako langileak greban

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako irakasleek grebak egingo dituzte Eusko Jaurlaritzak jarrera aldatu ezean. Negoziazio kolektiboa etenda dago eta bilerak egin arren ezer ez dela aurreratzen ikusita, EILAS, ELA, LAB eta UGT sindikatuek mobilizazioak egiteari ekin diote.

Urriaren amaieran 100 irakasle inguruk itxialdia egin zuten Gasteizen Hezkuntza Sailak duen egoitzan. Eta hilabete honetan zehar gehiago izango dira.

EAEko Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakasleek hitzarmen kolektiboa berritu gabe dute 2003. urtetik, eta sindikatuek berau berritzea eskatzen dute. Urte hauetan egin dituzten bilertan egindako proposamen guztiei administrazioak ezezkoa eman omen die, eta horregatik utzi diote bileretara joateari.

Sindikatuek bost eskaera egin dituzte. Hasteko, egonkortasuna mantentzea. Uztailearen 20an 20 urte baino gehiagoan indarrean egon den egonkortasun konpromisoa bukatzea erabaki zuen Hezkuntza Sailak. Ondorioz, egonkor izateari utziko diote 1.500 irakaslek datorren irailean eta sindikatuek egonkortasun konpromisoari eusteko "egiturazko beharra" ikusten dute.

Bigarrenik, 55 urtetik gorako irakasleek lanaldi murrizketa egin ahal izatea eskatzen dute. 2002ko lan hitzarmenean jaso zen hori, baina Hezkuntza Sailak ez du inoiz aurrera eraman.

Hirugarren eskaera ratioak jaitea da. Ikastetxe bakoitzak dauzkan ikaslearen arabera izan beharko lukeela diote.

Laugarrenik, soldatak progresiboki igotzea eskatzen dute, azken 10 urteotan irakasleen erosteko ahalmena % 15 jaitsi delako, sindikatuen esanetan. Lehen Hezkuntzako irakasle funtzionarioek 29.025 euro irabazten dituzte urtean; katedradunak ez diren DBHko irakasleek 33.760 euro; katedradunek 37.637 euro; eta Lanbide Heziketako irakasleek 33.450 euro.

Azkenik, hezkuntza sisteman gaur egun dauden behar berrietara egokitzeko, figura profesional berriak eskatzen dituzte, besteak beste, teknologia berrietarako edo etorkinekin lan egiteko profesional adituen figurak.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Luis Campoyk parlamentuan aurkeztu du 2006-2010 urteetarako hezkuntza garapenerako plana. Alde batetik, egungo egoeraren diagnostikoa egiten da txostenean, eta bestetik hainbat neurri proposatzen dira Europako Batasunean "Hezkuntza eta Formazioa 2010" akordioan zehaztutakoa lortzeko, betiere sare publikoari begira.

Hutsune gehiena dituen Haur Hezkuntza da. Gaur egun ez zaio erantzuten dagoen eskari osoari: 0-3 urteko haurrentzat dagoen eskaintza publikoak haurren % 24,5 soilik hartatzen du. Gaur egungo haur eskola publikoen eskaintzarekin 4.425 haurri erantzuten zaie, eta 2010erako bikoiztu egin nahi da, hau da, 8.666 plaza eskaini.

Immigrazioaren eraginez, 15 urtetik beherako biztanleria asko haztea espero da: 2002an % 13,4 baldin bazen, 2022an % 16,8 izatea espero da. Horrekin batera, lan eta familia kontziliatzeko neurriek eta emakumearen integrazio sozialak eta aukera berdintasunak 0-3 adin tarteko eskaera igo dezakeela aurreikusten da.

Oro har, ikasle kopurua ere igo egingo da. Gaur egun 88.016 ikasle daude Nafarroan eta 2010ean 94.427 izatea espero da. Horrek guztiak, noski, irakasle gehiagoren beharra ekarriko du.

GAIA

JA-LING

etorkinak eta gu batzen





Kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean zer?

Migrazio mugimendu batzuk uholde moduan iristen dira, eta azken urteotakoa halakoa da. Hezkuntzan ere eragin nabarmena izaten ari da: gero eta ikasle etorkin gehiago, gero eta hizkuntza eta kultura gehiago.

Euskal irakaskuntzaren erronkak bikoitza izan beharko luke. Alde batetik etorkinek euskaraz ikastea eta euskal kulturaren murgiltzea. Eta bestetik bertakoek etorkinen kultura eta hizkuntza errespetatzea. Elkarren arteko errespeturako eta elkarbizitza egoki baterako giltzarri dira.

Bide horretan urratsak eman dituzte Itziar Aramaiok eta Ima Ortegak, eta horixe kontatzera datozkigu.

G



Itziar ARAMAIO
HIZKUNTZA ERREFORTZUKO
IRAKASLEA



Ima ORTEGA
LEHEN HEZKUNTZAKO
IRAKASLEA

80ko hamarkada arte Euskal Herri-
ra etorritako etorkinak Espainiako eta
Frantziako lurraldeetakoak ziren batik
bat; beste lurraldeetatik etorritakoak
oso gutxi ziren. Hamarkada hartan ha-
si zen nabaritzen Hegoaldeko herrial-
deetatik datorren immigrazio joera (ba-
tez ere Afrikatik eta Hego eta Erdialde-
ko Amerikatik datorrena). Gaur egun,
Euskal Herrian bizi diren herritar guz-
tien % 3,6 Europako Batasunetik kan-
potik etorritako atzerritarrak dira. INE-
ren 2006ko urtarrileko datuen arabera,
EAEko biztanleriaren % 3,93 eta Nafa-
rroako biztanleriaren % 9,06 estatuz
kanpoko etorkina da. Hamar urtetan,
gure artean dauden etorkinen kopurua
seikoiztu egin da.

Immigrazio joera honek eragin zu-
zena izan du hezkuntzan, eta hala izaki,
gure artean dauden ikasle etorkinen in-
guruko datuak argi mintzo dira: sei ur-
teren buruan, EAEko ikasle etorkinak
% 0,66 izatetik % 4,25 izatera pasa dira,
eta azken urteotan, ikasturtero, bi mila
ikasle etorkinetik gora matrikulatzen
dira gure zentroetan. Nafarroan ikasle-
en ia % 10 etorkina da. Ipar Euskal He-
rriaren etorkinen pisua txikiagoa da,
baina halere azken urteetan igotzen ari
da, eta Lapurdin beste bi herrialdeetan
baino gehiago biltzen dira.

Elkarbizitzarako denok egokitu egin behar dugu

Argi dago etorkizun hurbileko es-
kola, kultura eta hizkuntza askotariko
haurrez margoturiko ostadarra dela.
Gure artean gero eta kultura nahiz hiz-
kuntza desberdineko ikasle gehiago
dago, eta goranzko joera hori ez dago
gelditzerik. Errealitatea hori izaki, ikas-
le etorkinen integrazio linguistiko eta
kulturalari, nahiz kohesio sozialari ate-
ak zabaldu nahi badizkiogu, gai hauek
(kultura eta hizkuntza aniztasuna) cu-
riculumaren parte izan behar dute,
normaltasun osoz lantzeko egunero-
koan. Izan ere, haur etorkinek gure hiz-
kuntza ikastearen eta gure kulturaren “in-
tegratzearen” pisua ezin dugu beraien-
gan bakarrik ezarri. Hainbat faktorek
dute eragina horretan, baina zerbaitek
indarra baldin badu, alde afektiboa da.
Guk harrera ona egin eta beraien kultu-
ra nahiz hizkuntzarekiko interesa era-
kusten badugu, beraiek ere beste ho-
rrenbeste egingo dute.

Hala bada, haur guztiek (bai etor-
kin, bai bertoko) aniztasun honen au-
rrean jarrera eta jakintza positiboa izan
dezaten, Haur Hezkuntzatik hasita
ikasgai guztietan eta hezkuntza komu-
nitate osoan bi gaiok lantzea oso gar-
rantzitsua da. Izan ere, immigrazioaz
gain badira XXI. mendeko gizartean
eragin handia izaten ari diren beste bi
faktore: europar integrazioa eta mun-
duaren globalizazioa, batez ere tekno-
logia berrien garapenarekin. Beraz,
ezinbestekoa da ikasle guztiak kultura
eta hizkuntza aniztasunean eta kultura
eta hizkuntza aniztasunerako hezteak.

Horretarako, proiektu eta proposa-
men ugari egon daitezke, eta horietako
bat da JA-LING proiektu europarra. Ho-
rren nondik norakoak azaltzera goaz
hurrengo orrialdeetan.

Kultura eta hizkuntza aniztasuna

Zer da JA-LING?

JA-LING¹ Language Awareness-en (Hawkins, 1987) ildo jarraitzen duen proiektu europarra da, EVLANG² proiektu europarraren jarraipena. **Bere helburu nagusia ikasgelako haur guztiei (bai etorkinei bai bertakoei) kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruan hezkuntza zabala eskaintzea da, aniztasun horren aurrean haur guztiek jarrera, jakintza eta gaitasun positiboa izan dezaten.**

M. Candelier-en gidaritzapean (Université du Maine-France), 2001. urtean Europako 18 herrialdetan jarri zen martxan. Gaur egun 14 herrialdetan gauzatzen ari da.

JA-LINGen bidez bi alderdi jorritzen dira. Batetik, "EVLANG: Éveil aux langues"³ mugimendua garatzen da Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. Curriculumeko hizkuntz arlo guztiak zentroko proiektu bakar batean sartzen dira (Roulet, 1980; Noguero, 1997; Castellotti, 2001; Hufeisen & Neuner, 2003) eta hizkuntza, curriculumeko ikasgai guztietan lantzen eta ikasten da, zentroko irakasle guztiak hizkuntza irakasle bihurtuz.

Bestetik, hizkuntza ezberdinen arteko elkarren arteko ulermena sustatu eta familia bereko beste hizkuntzak ikastea errazago bihurtzen du (gaitasun metalinguistikoen garapena bidez). Baina kultura eta hizkuntza aniztasuna-



Artur Noguero JA-LINGen zuzendari ordeetako bat (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa) eta Itziar Aramaio Txomin Agirre ikastolako Hizkuntza Errefortzuko irakaslea.

ren aurrean eta hizkuntzak ikasterako orduan, hizkuntzen inguruko kontzientzia landuz, ez dira soilik jarrerak edota balioak landuko, baita gaitasun eta jakintza positiboak ere. Beste era batera esanda, JA-LINGeko aktibitateek hiru dimentsiotan dute eragin positiboa ikasle guztiengan (etorkin eta bertako):

Jarrera positiboa lortu:

- Kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean.
- Hizkuntzak ikasterako orduan.

Gaitasun positiboa lortu hizkuntzaren ikaskuntzan laguntzen duten:

- Gaitasun metalinguistikoetan.
- Gaitasun kognitiboan lanketan.

Jakintza positiboa lortu:

- Munduan hizkuntzen inguruan bizi den errealitatearen aurrean (migrazioen eragina hizkuntzan, lurraldeetako errealitate linguistikoa, hizkuntza gutxituak munduan zehar, hizkuntza *versus* kultura...)

Material didaktikoak

Material didaktikoei dagokienez, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleek sortuak dira eta zentro bakoitzeko errealitatera eta kultur eta hizkuntza aniztasunera egokituak daude. Unitateak frogan jarri ostean, emaitza onak lortuz gero, web orri ofizialera pasatzen dira, proiektu honetan parte hartzen duten beste kideek erabil dezaten. Unitate

¹ JA-LING Janua Linguarum 95040-CP-1-2001-de-comenius-c1 (2001-2004), Aramaio, I. (2003b; 2005); www.dewey.uab.es/jaling; www.ecml.at; www.jaling.ecml.at

² ARAMAIO, I. (2003b).

³ Frantzia, Kanada, Erresuma Batuan edota adibidez Austrian veil aux langues mugimendu honen ildotik zein ekintza egiten diren ikusi nahi duenak ondorengo web orriotan lor dezake informazioa: Austria www.zse3.asn-graz.ac.at; Kanada (Quebec) www.elodil.com; Erresuma Batuan www.language-investigator.co.uk/index.htm; Frantzia <http://plurilingues.univ-lemans.fr> eta www.chez.com/jaling; Katalunia www.dewey.uab.es/jaling; zentroa www.ecml.at



Emaitzak

Nazioarteko proiektu honi jarraipena egiteko, hainbat lurraldetan egiten diren ebaluaketen emaitzak aztertzeko ikerketa talde bat dago Estatu frantziarrean, Université du Maine-n.

Azken ebaluaketen arabera (2003), JA-LING martxan jarri duten ikastetxeetan ondorengo emaitzak lortu dira:

1. Ikasle etorkinen jarrera aldaketak:

ikasle etorkinek nota hobekia ateratzen dituzte eta ikasgelan askoz gehiago parte hartzen dute. Ez dira gutxietsiak edo desberdinak sentitzen. Beraien jatorria errekonozitu egiten zaie eta horretaz harro sentitzen dira, denek errespetuz eta berdintasunean tratatzen diela ikusten baitute (proiektua martxan jarri aurretik ez bezala). Proiektu integratzaileetan lehen pertsona parte hartu duten haur etorkinen esanetan, hizkuntza irakaskuntza integratzaileak pertsona gisa indartsuago egin ditu, eta sozialki ere, integratzerako orduan, autoestimua igo die.

2. Jatorrizko haurren eta haur etorkinen arteko harremanen hobekuntza nabaria.

3. Eskolarekiko gurasoen interes handiagoa.

4. Haur guztiengan kultura eta hizkuntza aniztasunaren aurrean jarrera baikortu.

5. Gaitasun metalinguistiko eta kognitiboaren garapena.



edo proiektu didaktiko hauek, besteak beste, ondorengo ezaugarriak dituzte:

1. Ez da curriculumean *beste ikasgairik sortu* behar, *curriculumeko ikasgaien barruan lantzen* baitira (berezi hizkuntzen arloan, baina baita geografia, historia, matematika, natura... ikasgaietan ere). Ohiko curriculumeko ikasgaietan JALING sartzeak, ikasleei ikuspuntu zabala ematen die hizkuntzaren fenomenoak ulertzerako garaian. Are gehiago, ingurune egokian erabilia, ohiko curriculumeko ikasgaiak hobeto ulertzen ere lagun dezakete.

2. *Ikasturte guztian zehar* landu behar diren materialak dira, hizkuntzen ikasgaiak lantzen ari garenean edo beste ikasgai batzuetan, baina beti ere, *curriculum jarraikorra* bat sortuz, *zirkulua* eratua eta *eskolako hizkuntz printzipio objektibo*en gainean oinarritua.

3. Unitate didaktiko hauek ikasleei, beste hizkuntza batzuk ezagutzeko aukera ematen diete, eta *onuragarri* dira *ikasle guztientzat*, bai elebarkar, bai eleanitzentzat, hizkuntzen kulturaren gainean duten ikuspegia zabaldu eta aberastu egiten baitzaie denei.

4. Aktibitate hauek Hawkins-en (Hawkins, E., 1987) proposamenen gainean eratuta daude, eta gure kasuan *euskal hizkuntza, gelako ikasleen ama hizkuntzak* eta *eskolan irakasten diren beste bigarren hizkuntzak kontuan izanik* eratuta daude. Horren helburua ikasleei hizkuntz aniztasunaren ideia barneratzea da, hizkuntza horien funtzionamendua, erabilera, berezitasunak eta ezberdintasunak... ikertzeko arra beraien barnean sortuz, eta hizkuntzak beraien artean konparatzeko gaitasuna garatuz.

5. *Hizkuntzen ikasgairako jarrera positibo*en lanketa sakona egiten da,



baina aldi berean, *hizkuntza eta hiztun guztiekiko*. Bestetik, *hizkuntzak ikasteko eta ulertzeko gaitasunak* ere lantzen dira; eta *ama hizkuntzatzat hizkuntza gutxitu bat duten haurrei* beraien *autoestimua hobetzen* eta *beste ikaslagun guztiengan hizkuntza horrekiko interesa sortzen* laguntzen du.

6. *Aktibitate bakoitzarekin helburu jakin batzuk* lantzen dira. Helburu horiek *oinarri didaktiko bakoitzaren baxerian azaltzen* zaizkio irakasleari.

7. *Pedagogia aktiboa* dute, eta sarritan *ikasleen arteko interakzioa* eskatzen da.

8. *Ikasleak ikerketak, galdeketak, aurkikuntzak eta arazoei erantzunak ematera* bultzatzen dituzten aktibitateak lantzen dira. Funtsean, JA-LINGeko *aktibitate*ek hiru fase dituztela esan genezake: *egoera baten aurrean jarri, ikerketa bat egin eta sintesia*. Azken horrek askotan instituzionalizazioaren papera betetzen du.

9. *Irakasleei banatzen zaien material didaktikoetan erantzunak eta aktibitate horiekin zer lortu nahi den* ere azaltzen da, ikuspuntu zabala ematen die beraien autoformazioarako baliagarri izateko.

10. *JA-LING proiektua inolako arazorik gabesar daiteke eskola bakoitzak urteko jarrira* dituen curriculumeko helburuen barruan.

JA-LING Euskal Herrian

Txomin Agirre ikastetxeko esperientzia



Euskal Herrian egindako lehen esperientzia da Txomin Agirre ikastolakoa.

Txomin Agirre Ondarroan kokatutako D ereduko ikastetxea da. Bertan, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak eskaintzen dira. Ikastetxea eleaniztasun proiektuan sartuta dago.

Ondarroa, Bizkaiko kostaldean kokaturiko 9.500 biztanletako herria da, eta horietatik %92 euskaldunak dira.

Duela hiruzpalau urtetatik hona, batik bat itsaso munduarekin lotuta, Ondarroa atzerriko immigrazio ugari ari da jasotzen, batez ere senegaldarra. Gaur egun, bertako biztanleriaren %5,6 estatu espainiarretik kanpoko etorkina da.

Immigrazio etorrera esanguratsu honek eragin zuzena izan du ikastetxe honetan, eta gaur egun bertako ikasleriaren %9 etorkina da.

Errealitate horren aurrean zerbait egin behar zela-eta, egoera berri honi egokitutako "Harrera Plana" egin zen, eta horren barruan hainbat ekintza era-

man ziren aurrera: matrikulazio orriak, zentroko informazioa eta abar hainbat hizkuntzetan jarri; ikasle arabiar ohien laguntzaz materialak euskara-arabieraz jarri; lehenengo egunetik ikasle arabiarrekin eta haien gurasoeekin harreman zuzenak izateko (itzultzailerik gabe) zentroko psikopedagogo arabiar hizkuntza ikasten hasi zen; harreman zuzenak hasi dira hainbat erakunderekin –Caritas, Immigrazio Teknikaria...-. Hasiera batean, kulturantzarenari begira dagoen hezkuntzaren lehen pintzeladak ematen hasi ziren.

Zergatik erabaki zen Txomin Agirre ikastetxean JALING proiektuaren alde egitea

Bi arrazoi nagusi bide erabaki zuten Txomin Agirre ikastetxean Jaling proiektua martxan jartzea.

Batetik, urteak aurrera joan ahala, ikastetxean zera konturatu ziren: haur etorkinetako batzuk, nahiz eta bi urte Ondarroan eta D ereduan ikasten aritu, arrazoi bategatik edo bestegatik, ez

zirela ez kulturalki, ez eta linguistikoki euskal munduan "gutziz" integratzen; edota nahiz eta euskara ikasi, ez zutela euskal kulturaren parte hartzeko inolako intenziorik adierazten. Hala, euskal hizkuntza eskola orduetara baino ez zen mugatzen. Giro horretan, hipotesi bat sortu zen: kulturalki herrian, gela... eroso nahiz gustura sentitzen ez diren haurrak, nekez "integratuko" dira kulturalki, eta beraz, nekez ikasiko dute euskara (eta ikasten baldin badute -motibazio kurrikularra bide-, eskola orduetatik kanpo ez dute erabiliko).

Hipotesi hori horrela ote zen edo ez baieztatzeko, 2004-2005 ikasturtean, hizkuntza errefortzuetako irakaslearen gidaritzapean (Itziar Aramaio), Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ikerketa bat egin zen, eta baita hipotesi hura baieztatu ere.

Bestetik, bazen beste pisuzko arrazoi bat zentroan JA-LINGmartxan jartzeko.





Duela zenbait urtetatik, Txomin Agirre ikastetxea eleaniztasun proiektuan sartuta dago. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasita, asteen bost orduz, ingelesa ikasten da, eta Lehen Hezkuntzako 1. mailatik eskulanak eta ipuin-gintza frantsesez ematen dira eta ingurumena ingelesez. Bestetik, Haur eta Lehen Hezkuntzan bizkaiera estandarrean ikasten dituzte ikasgaiak eta DBHn euskara batuan.

Hizkuntz aniztasun horren aurrean, bai bertakoentzat, bai eta etorkinentzat ere, gaitasun metalinguistiko eta kognitiboen lanketa oso garrantzitsua da. Eta JA-LING proiektuak arlo hori ere ongi asko betetzen du.

Hala bada, ikusirik ikastetxeko kultura eta hizkuntza aniztasuneko beharriaz zuzenean egokitzen zela JALING, 2005-2006 ikasturtean proba legez Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 1. mailara proiektu hau martxan jartzea erabaki zen.

Nola gauzatu da JA-LING zentroan?

Hizkuntz errefortzuetako irakasleak JA-LING proiektua eta horren ildotik

doazen beste zenbait proiektu ongi ezagutzen zituen. Hala bada, zentroko hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruko beharriaz ikusita, ikastetxeko zuzendaritzara jo eta 2005-2006 ikasturteari begira proiektu hau modu esperimentalean zentroan martxan jartzea proposatu zuten. Klaustron proposamena aurkeztu eta onartu ostean, proba moduan 2005-2006 ikasturtean LH3tik DBH1era (113 ikasle) martxan jartzea erabaki zen, emaitza onak lortuz gero, hurrengo ikasturteetan Haur Hezkuntzara eta DBHko beste mailetara zabaltzeko asmoarekin.

Euskal Herrian burutzen zen JA-LINGeko lehen esperientzia izaki, proiektu europar honen zuzendari ordeetako batekin, Artur Nogueroletekin, jarri ziren harremanetan (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa). Beraien asmoak azaldu, eta honek, JA-LINGen materialak euskaratzen Gasteizko Berritzeguneko Ima Ortega zebilela aipatu zien. Orduan, ondarrutarrak Imarekin koordinazioan jarri eta proiektua martxan jarri zuten.

2005eko iraila-azaroa bitartean,

bost unitatetan oinarritutako programazioa eratu zen:

1. Hizkuntza aniztasunaren aurrean jarrera eta jakintzei begirako hasierako egoera-ebaluazio testa.
2. "Nire egunerokoa hizkuntzei begira".
3. "Etiketetako hizkuntzak".
4. "1, 2, 3... 4.000 hizkuntza".
5. "Ikasleen hizkuntzetatik, munduko hizkuntzetara".

Unitate hauek elkarren artean lotura logiko eta zirkularra dute.

Hizkuntza errefortzuetako irakasleak abenduan geletan unitateok martxan jarri aurretik, irakasleei ikastaro bat eskaini zien unitateen funtzionamenduaren inguruan. Aldi berean, Gabon aurreko batzarrean, tutore bakoitzak bere ikasleen gurasoei JA-LINGen berri eman zien; eta zentroko aldizkariko Gabonetako alean ere beste horrenbeste egin zen.

Lehen unitateak ("Hasierako egoera neurtzeko galdetegia" eta "Nire egunerokoa hizkuntzei begira") Gabon aurretik hasi ziren lantzen, besteak Gabon osterako utziz. Azken horiek lan-

Haur etorkinetako batzuk, nahiz eta bi urte Ondarroan eta Dereduan ikasten aritu, ez ziren ez kulturalki ez eta linguistikoki euskal munduan "guztiz" integratzen.

JA-LING Euskal Herrian

tzeko, ohiko irakasleaz gain, ikastetxe-ko kulturartekotasuntaldeko hiru kide-ak ere sartzen ziren geletan, ahalik eta koordinazio eta lanketa zuzenena lortu guran. Talde horretako kide bakoitzak bi gelen ardura hartu zuen.

JA-LINGeko unitateak Ingurumena, Euskara, Gaztelania, Ingelesa edo Frantseseko orduetan landu dira, bakoitzari bi-hiru ordu eskainiz.

Martxoan, JA-LING zentroan nola burutzen zihoan ikuskatzeko, Artur Noguerol bera etorri zen Txomin Agirera.

Maiatzean, unitate guztiak bukatu ostean, berriro hasieran pasatako hizkuntza aniztasunaren aurreko jarrera eta jakintzen inguruko test berdina pasa zitzaizen ikasleei.

JA-LINGek haurrengan duen eragina hobeto ikusteko eta lorturiko emaitzen konparaketa hobea egiteko, ikasturtean zehar JA-LING proiektua landu ez zuten ikastetxe batetara jo zen test berarekin. Testa Berriatuko herri ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko haurrei pasa zitzaizen. Ikastetxe horretan ikasleen %15 etorkina da.

Zein emaitza lortu dira?

Hasteko, zera aipatu behar da: ez dela alde oso esanguratsurik nabari Berriatuko herri ikastetxeko haurrek hizkuntza aniztasunaren aurrean duten jakintza eta jarreraren aurrean, eta Txomin Agirre ikastetxeko haurrek lehen testetan adierazten zutenaren artean. Hau da, hasierako testean parte hartu duten LH3tik DBH1era bitarteko 123 ikasleek JA-LING landu aurretik hizkuntza aniztasunaren aurrean jarrera eta jakintza antzekoa adierazten dute (are gehiago, hitzen aurrean nahiz gra-



fien aurrean egiten dituzten hausnarketak, nahiz eta okerrak izan, askotan berdinak dira bi ikastetxeetako haurren artean).

Baina mamira joz, zer-nolako emaitzak lortu dira JA-LINGen Euskal Herriko lehen esperientzia honetan? Bai Txomin Agirre ikastetxeko zuzendari-tzaren arabera, bai eta proiektu honen arduradunen arabera, merezi izan du zentroan proiektu hau martxan jartzeak, hasieran lortu ziren emaitzetatik bukaeretakora alde handia baitago. Are gehiago, lortu diren emaitzak ikusita eta aurten egin diren akatsetatik ikasiz, datozen urteetan ere proiektua lantzen jarraitzeko asmoa adierazi dute.

Alde batetik, hizkuntza eta kultura aniztasunaren aurrean ikasleengan jarrera aldaketa nabaria egon da, bai eta hizkuntza berri bat ikasteko grinari begira ere.

Hasierako testean adierazi zutenaz, beraien inguruan idatzita nahiz ahoz antzematen zituzten hizkuntzak eskolako hizkuntzetara mugatzen ziren bereziki (eta asko, euskara eta gaztelanira soilik). Azkentesten emaitzen arabera, aldiz, hori guztiz aldatu da. Orain,

egunero entzuten dituzten hizkuntzen artean, wolofera, arabiera, errumaniera, txinera... aipatzen dituzte, eta idatzizkoari loturik ere, batez beste zortzi hizkuntzatik gora aipatzen ditu bakoitzak. Horri lotuta, hizkuntza berriak ikasteko grina ere sortu da ikasleen artean, eta hainbat guraso etorri dira esanez beraien seme-alabek orain italiara, arabiera edota txinera ikasi nahiko lukezela.

Horrekin batera, hizkuntzen inguruko jakintza ere asko hobetu da, eta aldi berean, horrek beste kulturekiko interes eta jarrera positiboa ekarri du, etorkinen eta bertakoen arteko harremanak hobetuz eta ikasle etorkinen autoestimua goratuz. Esaterako, hasieran, Marokon "marokiarrez" hitz egiten zela uste zuten ikasle gehienek, eta Ondarroan dauden beltz guztiek, "afrikanoa". Orain badakite "marokiarra" edo "afrikano" hizkuntzarik ez dela existitzen, eta esaterako, Marokon bi hizkuntza nagusi behintzat badaudela: arabiera eta berberea, zeinak ez daukaten zerkusirik ezta grafian ere. Aldi berean, ikasi dute bai ikastetxeko ikasle afrikarrek, bai kalean ikusten dituzten beltzek, beraien jatorrizko lurraldearen

Hizkuntza eta kultura aniztasunaren aurrean, ikasleengan jarrera aldaketa nabaria egon da.

arabera, hizkuntza bat edo beste hitz egiten dutela: peul, soinke, wolof, fula... Edo gure kasuan bezala, hizkuntza bat baino gehiago.

Bestetik, eta hizkuntzen inguruko jakintzekin jarraituz, hasieran latinetik, germaniarretik, eslaviarretik, zeltiarretik... zein hizkuntza datozen ia inork ez zekien bitartean (latinaren kasuan, gehienez jota ere, gaztelania, frantsesa, italiara eta portugesa aipatzen dituzte), bukaeran, batez beste, talde bakoitzeko hiru behintzat aipatzen dituzte.


Gurea ez beste grafia batean idazten diren hizkuntzen zerrenda ere (eta horien identifikazioa testuetan), hasieran, asko jota, arabierara eta txinerara mugatzen zen. Aldiz, bukaerako testean %87k bertan jarri ziren sei grafia motak (georgiera, armeniarra, greziarra...) ongi identifikatu zituen.

Eta bukatzen joateko, zer esanik ez hizkuntzen ikaskuntzan laguntzen duten gaitasun metalinguistiko eta kognitiboen garapenean izan den aurrerakuntza. Hizkuntza familietan oinarrituta eta gaitasunon lanketa bide, bukarako testean, %97k bertan agertzen diren zortzi hitzak ongi itzultzen ditu euskarara (hasierako proban ehunekoak ez zen %50era ere iristen).

Azken emaitzei edota lorpenei begira, ez dago adinari begirako alde esanguratsurik; hau da, LH3tik DBH1era ikasle guztiei test berberak pasa zitzaizkien eta unitate berberak landu dituzte, eta LH3ko haurrek ez dituzte DBH1ekoek baino emaitza kaxkarragoak lortu jakintzei eta jarrerari dagokionez. Are gehiago, aurrerakuntzarik handienak LH3an eta LH6ko bi taldeetan eman dira. Hori horrela gertatu izanaren arrazoi zehatzik ez dugu, baina uste da, zerikusi handia izan duela bi talde horien tutoreek proiektu honetan benetan sinestu eta inplikatu izanak. Hau da, proiektu hau ez dago ikasleei begira soilik, baita irakasleei ere, denak aberasten batira hizkuntza aniztasunaren inguruko jarrera, gaitasun eta jakintzen inguruan; baina noski, ikasleei mezua heltzeko, lehenik norberak sinestu behar.

Irakasleek, ikasleekin unitateak lantzen ari ziren bitartean, lehenago sekula jabetu edo ikasiak ez zituzten hizkuntzen inguruko hainbat kontu barnerratu dituzte (Afrikako hainbat lurraldetan hitz egiten diren hizkuntzak eta horien ezaugarri batzuk, grafia desberdinak, hizkuntza familiak, estrategia metalinguistikoak...). Beraien ikasle etorkinen hizkuntza eta kulturaren inguruko bitxikeria ugari ikasi dituzte; aniztasuna, gauza positibo eta aberasgarri moduan landu dute curriculumaren barruan; beraien ikasle etorkinen hizkuntzan hitz batzuk esaten ikasi dute... Azken finean, proiektu honek ez du ikasleengan soilik eragina, baita, eta behar bada gehiago, irakasleengan ere.

Eskerrik asko proiektu hau aurrera eramaten lagundu duzen guztioi: Artur, Jesus Mari, Garbiñe, Marta, Berriatuko herri ikastetxea...



JA-LINGen inguruko informazioa euskaraz

- ARAMAIO, Itziar; ORTEGA Ima: *JA-LING EUSKARAZ: materiala eta informazio bilduma CDan*. Behin behineko beretsioa, 2006.

12 unitate didaktiko euskaratuak; JA-LINGen ildotik doan filosofia eta horren inguruko bibliografia osatua (Aramaiio, I); Lehen Euskal esperientzia (Txomin Agirre ikastetxea);...

- ARAMAIO, Itziar: "EVLANG europar programa", *in* HIK HASI 79 (2003), 30-32.

- ARAMAIO, Itziar: "EOLE", *in* HIK HASI 77 (2003), 28-31.

- ARAMAIO, Itziar: "Didaktika integratzailearen ekarpenak", *in* HIK HASI 83 (2003), 30-32.

jurjo torres

ELKARRIZKETA

A Coruñako Unibertsitateko katedraduna

“Irakasleen eguneratzeak derrigorrezkoa izan beharko luke. Mediku bat azken artikulua irakurrita egotea nahi izaten badugu, hezitzaile bat zergatik ez!”



“ Hezkuntzako profesionalak oinarri kultural eta psikopedagogiko ona eduki behar dute. Oinarri kulturala edukitzeak gaur egungo zientziaren garapenetan eguneratuta egotea esan nahi du. Eta ezagutza psikopedagogikoa edukitzeak ikasleak ezagutu behar direla: zer-nolako gaitasunak dituzten, zein mundu edo auzotan bizi diren, zer arazo dituzten euren familiek... Hori jakin behar da eurekin konektatzeko.

”

La desmotivación del profesorado liburua kaleratu du aurreten A Coruña-ko Unibertsitateko katedradun honek. Aurretik ere beste zenbait liburu eta artikulua kaleratua da. Hezkuntzaren barruan hainbat gai landu izan ditu: curriculumaren azterketa soziopolitikoak, hezkuntza politikak, curriculum integratua, diskriminazioaren aurkako curriculum, multikulturalismoa, irakasleen prestakuntza...

Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen V. Jardunaldian hartu zuen parte maiatzean, Donostian. “Jakintza eta informazio gizartean irakasleriaren papera aztergai” hitzaldia eman zuen. Egungo egoeratik abiatuta eta etorkizunari begira, hainbat puntu jarri zituen mahai gainean.



Irakasleriaren funtzioaz hitz egin aurretik, ez al genuke hitz egin beharko eskolaren funtzioaz? Zertarako sortu zen eta zer funtzio du gaur egun?

Bai, lehendabizi eskola zertarako, zer gizarte motatan eta zer helbururekin sortu zen jakin behar da. Irakaskuntza estatu modernoaren sorrerarekin lotuta dago, eta helburua lelo handiek esaten zutenaren kontrakoa zen: uniformizatzea. Xedea kulturaren eta historiaren ikuspegi uniforme bat ezartzea zen. Curriculumaren helburua egia bakarraren ikuspegia ezartzea zen. Hizkuntzaren kasuan, adibidez, bat inposatu nahi zen, Madrilgo gaztelania zen egokia eta zuzena, eta gainerakoak azentudunak ziren, zerbait negatiboa zutenak. Geografian, esate baterako, berehala ikasi genituen Espainiaren mugak, eta atzerritar gisa definitzen zen hor bizi ez zen guztia. Literaturan eta Historian berdin. Ezagutza guztia guri hezibidea ematera zuzenduta zegoen.

Gaur egungo gizartea aldatu egin da, beste kontzeptu batzuk erabiltzen dira: integrala, kultur aniztasuna, hizkuntza aniztasuna... Gainera, eskolak beste funtzio batzuk ditu orain. Lehen, eskolatzea eta prestakuntza intelektuala ematea zen xede bakarra. Orain, komunitatearen garapenean, bai ekonomikoan eta bai sozialean, lagundu behar du, norberaren garapenean ere bai, alderdi psikologikoan, hiritartasunean... horiek denak garatu behar dira. Horrek guztiak hezkuntzaren filosofia aldatu egiten du.

Orduan, zure ustez, zein dira gaur egun hezkuntzaren xedeak?

Ez dauzkagu argi. Egoera oso anbigua da. Hitz asko erabiltzen dira, bai-

na askotan ez dakigu zer esan nahi duten. Zergatik da derrigorrezkoa eskolara joatea jada ezer derrigorrezkoa ez den gizarte batean? Eta gainera, ez hori bakarrik; gero eta urte gehiago egin behar dira eskolan. Horrek esan nahi du zerbait garrantzitsua dela, hor erakutsiko zaiela munduari aurre egiten, munduan bizitzen. Eta hortxe dago koska: zer mundu? Nolako mundua? Oso zaila da jakitea zein diren gizarte honen ezaugarriak. Eta ondorioz, zaila da hezkuntzaren helburua zein den jakitea.

Gizartea definitzeko zailtasun horrek eragina du hezkuntza sisteman. Gizartearen ezaugarrien arabera moldatu behar du eskolak. Esate baterako, mugimendu feministak aurrera egin ahala, baterako hezkuntza lantzen hasi ginen; beste herrialdeetako pertsonak etortzen badira, haiekin bizi behar dugu; sexualitate desberdinak daudela onartzen joan garen heinean, gelan neska-mutil horiek ditugula jakin behar dugu; edota familia tradizionala ez duten ikasleak ditugula. Gertatzen ari denari buruzko analisisia egin ahala, eskolaren helburuak eta funtzioak aldatu egingo dira. Analisi horien arabera, eskolak egokitu egin behar du.

Gaur egun ezagunak diren autoreek hainbat modutara definitu dute egungo gizartea: batzuek diote arrisku globaleko gizartea dela, beste batzuek informazioaren kapitalismoko gizarte batean bizi garela; edo kapitalismo zibernetikoan, modernitate likidoan, gizarte multietnikoan, postmodernitatean, transmodernitatean...

Zalantza gizaritate batean bizi gara, eta egiak ez dira absolutuak, lehen ziren moduan. Gaur egun ez dakigu neska-mutilei egokituko zaien gizartea nolakoa izango den. Etorkizunerako prestatzen ari garela diogu, baina zein da etorkizun hori? Nolako lanpostuak egongo dira? Zer ezagutza eskatuko zaie? Bizitza osorako lanpostua bukatu da; etengabeko ikaskuntzaren garaia iritsi da.

Panorama horretarako prestatu behar dute irakasleak. Zure iritziz,



zer da garrantzitsuen irakasleen prestakuntza?

Hezkuntzako profesionalek oinarri kultural eta psikopedagogiko ona edukitzea behar dute. Etapa bakoitzak bereari dagokion edukia jakin behar du, baina denek eduki behar dute oinarri kultural sendoa. Eta horrekin batera, ezagutza psikopedagogikoa, haurrak ezagutzeko.

Zer esan nahi duzu oinarri kulturalarekin?

Gauegungo zientziaren garapenarekin eguneratuta egotea esan nahi dut. Hori exijentzia handia da, erronka gehien dituen lanbideetako bat baita hezitzaileena, kulturalki oso eguneratuta egotea eskatzen baita. Irakasle batek Giza Zientzien ikasgaia erakusten badu, jakin behar du zer egiten ari diren giza zientzietan, zer diskurtso mota dabilzan, zer analisi egiten ari diren... Hezitzaile batek jakin behar du nolako zinema egiten ari den, zer erakusketa eta mugimendu artistiko egiten ari diren eta zer garapen kultural egiten diren eurak lantzen ari diren gai guztietan.

Aldi berean, prestakuntza psikopedagogikoa eduki behar dutela diozu.

Bai, eta horrek esan nahi du jakin behar dutela ikasketa ereduaren, adimen

moten, espazioen antolaketa moduen, bitarteko didaktikoen, hezkuntza teknologien eta abarren inguruan egiten ari diren azterketa eta ikerketen berri. Horretan eguneratuta egon behar da, ezagutu egin behar baitira nolako ikasleak ditugun, zer-nolako gaitasunak dituzten, zein mundu edo auzotan bizi diren, zer arazo dituzten euren familiek... Hori jakin behar da eurekin konektatzeko.

Gaur egun ikerketa psikopedagogiko asko egiten da: nolakoa izan behar duen material kurrikularrak, zein diren onak, nola erabil daitezkeen ondo teknologia berriak, nola ari diren gaizki erabiltzen, zer heziketa metodo dauden, zer esperientzia egiten ari diren beste leku batzuetan, zer arazo dituzten... horren guztiaren gainean egon behar du hezitzaileak.

Ez al da gehiegi eskatzea? Irakasleak prest al daude etengabe eguneratuta egoteko?

Denetarik dago. Berrikuntza mugimenduetan egon izan ziren irakasleak, administrazioak zioenaren gainetik, euren erantzukizun politiko eta sozialengatik, prestatzen eta eguneratzen egon izan dira. Nik beti esaten dut legegok batzuk lehendik egiten ari direna legitimatu besterik ez dutela egiten. Orduan, badago talde serio eta eguneratu bat.

E

“Bakoitzak bere diziplinatik ikusten dituzte gauzak. Eta are okerragoa dena, diziplina horren defendatzaile sutsu bilakatzen gara. Akats hori oso handia da, eta kaltegarria erabat. Hezkuntza sisteman sartzean, lankideak oso pertsona interesgarriak direla ikusi behar da, eta haiek dakitena eta erakusten dutena ere bai”

Eta horien ondoan, alderantzizkoa egiten duen beste talde bat: funtzionario izan nahi duena, eta lortutakoan inork molestaterik nahi ez duena.

90eko hamarkadaz geroztik egin diren ikerketa zientifiko eta enpiriko ugariak garbi erakusten dute berriztapen proiektuetan murgilduta dauden irakasleen ikasleek hobera egiten dutela arlo guztietan.

Irakasleen eguneratzeak derrigorrezkoa izan beharko luke. LOEn jasota agertu beharko luke. Medikua bat azken artikulua irakurrita egotea nahi izaten badugu, hezitzaile bat zergatik ez!

Dena dela, prestakuntzaren eta eguneratzearen kontua ez dira beharko liratekeen moduan ikusten. Horren beharra dagoela kontzientziatu behar dugu. Izan ere, gaur egun badaude astakeria hau esan eta gorritu ere egiten ez diren irakasleak: “Hori teoria da, teoriarik ez dute ezertarako balio!”. Norbaiti hori esaten entzuten badiozu, egon seguru irakaslea dela. Beste edozein kolektibok inoiz ez luke horrelakorik esango. Esango luke “teoria hori astakeria izugarria da” edo “teoria hori oso txarra da”, baina teoria behar da azalpenak emateko, teoriaren bidez joan baita gizateria ezagutza eraikitzen eta elkarrengandik ikasten.

Motibazioaren kultura lantzea beharrezkoa da, agidanez. Azken urteotan, ordea, ahaleginaren kulturari eman zaio indarra. Nola pasa orain motibazioaren kulturara?

Irakasleen kasuan, lanbide hau interesgarria izan dadin lortu behar da. Orain arte ez da horrela izan. Ikusi besterik ez dago ikasketa hauek egiteko unibertsitatean ez zela notarik eskatzen, eta beste ikasketa batzuk egiteko notarik ez zutenak hasten zirela irakasle ikasketak egiten. Eskola esperientzia onenak dituzten herrialdeetan filosofia alderantzizkoa da: ikasle onenak dediaztatzen dira hezkuntzara. Lanbide erakargarria egiten dute, hezibide egokia emanez, ondo ordainduz eta exijituz.

Ikasleen motibazioari begira, irakasle guztiek aurreko mendearen hasieratik zekitena egin beharko litzateke: ikasleari ikasi behar duena interesgarria eta erabilgarria dela eta zentzua duela ikustarazi. Ikasleei beren mundu esperientzialarekin zerikusia duten gauzei buruz hitz egiten badiegu, edo bizi diren testuinguruari buruz, arreta gehiago erakartzen dugu. Esate baterako, euren herriko hondartzaren kutsaduraz hitz egiten badiezu, edo gertatu den istripu bati buruz, horrek gehiago erakartzen ditu mundu zientifikora eta



analisietara K. a. 200. urtean Grezian gertatu zen istripu bati buruz hitz egiteak baino. Hori azterketarako sartzen bada, ikasten da; bestela, ez zaio inori interesatzen. Historian gauza bera gertatzen da: beti atzetik hasten gara, historiaurretik, eta inoiz ez gara iristen gaur egungo garaietara.

Horrek ikasleak ez dituela motibatzen jakinik, zergatik jarraitzen dugu horrela?

Sistema modu diziplinarrean antolatuta zelako eta irakasleak ere hala prestatuta daudelako. Bakoitzak bere diziplinatik ikusten du mundua. Lagunartean gaudenean eta bat psikologoa, bestea ekonomilaria, bestea fisikoa, bestea medikua, beste kamioilaria, bestea igeltseroa... denean, bakoitzak bere lekutik ikusten ditu gauzak. Ekonomilariari dena ekonomiak esplikatzeko duela iruditzen zaio, fisikariari fisikak, eta abar. Ondorioz, beste ikuspegiak ez ditugu ikusten.

Irakasleen artean gauza bera gertatzen da. Bakoitzak bere diziplinatik ikusten ditu gauzak. Eta are okerragoa dena, diziplina horren defendatzaile sutsu bilakatzen gara. Horrela, fisikaria baldin bazara eta ikastetxe batera joaten bazara, zuretzat garrantzitsuena zure gaia da, eta gerra militar batean bezala, besteei orduak kentzen eta zureak gehiago edukitzen saiatuko zara. Gudariak gara, eta guretzako espazioak konkistatu nahi izaten ditugu, besteak mesprextatuz.

Akats hori oso handia da, eta kaltegarria erabat. Hezkuntza sisteman sartzean, lankideak oso pertsona interesgarriak direla ikusi behar da, eta haiek dakitena eta erakusten dutena ere bai. Are gehiago, besteek erabiltzen dituzten gauzak niretzat onuragarriak izan daitezke, eta hori aprobetxatzen jakin behar dut. Zer ari dira ikasten beste irakasleekin? Nola? Hori jakitea interesgarria da. Ez da posible zure ikasleek zortzi ikasgai edukitzea, zu horietako bateko irakaslea izatea eta besteekin zer egiten duten ideiarik ere ez edukitzea. Ikasle batek beste ikasgai bateko gauza



batek zer erlazio duen zure ikasgaiko batekin galdetzen dizunean, ezin zaio esan ideiarik ez duzula eta hori ez dela garrantzitsua. Horrek argi uzten du ez zaudela ikastetxe batean, baizik eta banakako etxe edo apartamentuz osatutako eraikin batean. Ikastetxe klubak dira horiek. Eta errealitatea ez da hala; errealitatea lotuta dago, ez sailetan banatuta.

Zeri deitzen diozu ikastetxe klubak?

Irakasle bakartuz osatutako zentroak dira. Une askotan ikastetxe bat bizi-lagun bakartuz osatutako eraikin bat izaten da. Familia bakoitzak nahi duena egiten du, inori ezer eskatu eta exijitu gabe. Gauza batzuk partekatzen dituzte, baina ez daukate proiektu komunik euren artean. 1. pisuko A atekoak ez daki zer gertatzen den B atekoaren etxe barruan. Ezta 2. pisuko etxeetan ere, eta 5. pisukoaren berririk ere ez du. Inork ez daki bakoitzaren etxe barruan zer gertatzen den. Bada, ikastetxe batzuetan gauza bera gertatzen da, eta horrekin hautsi beharra dago. Garrantzitsua da irakasleek elkarren berri izatea. Zeren pentsatzen dugu DBHko ikasleek ikasgai guztietako edukiak jaso, denak nahastu eta lotu egiten dituztela buruan. Eta ez da hala.

Egungo ikasketa ereduak ikasketa paraleloa da, zentzu geometrikoan ulertuta. Hau da, inoiz gurutzatzen ez

diren lerroak, elkarrekin topo egiten ez duten lerroak. Horrek esan nahi du ikasleek ez dakitela barroko garaiko zientziak zer zerikusit duen arte barrokoarekin edo garai hartako izate sozialarekin edo politikorekin. Ez dute elkarren arteko loturarik ikusten, paraleloki pentsatzen ikasten baitute. Beste modu batera esana, Matematikako eskoletan matematikoki pentsatzen ikasten dute, eta ez dakite horrek zer erlazio duen gainerako munduarekin. Teknologiaren, zientziaren eta giza harremanen munduan matematika erabiltzen ari dira, baina ez dira horretaz konturatzen, ez dakite matematika egungo munduan eta prentsan agertzen diren gauzak azaltzeko erabil dezaketela.

Zergatik ezin dute lan egin gela batean bi irakasle? Eta ez bakoitza bere espazioan, gelan, munduan? Gaur egungo munduarekin zerikusirik ez daukan tradizio bat daukagu arrastaka.

Autoebaluazio prozesuak ezartzea ezinbestekoa ikusten duzu. Zernolakoa izan behar du autoebaluazio horrek, zure ustez?

Gaur egun kanpoko ebaluazioarekin obsesionatuta gaude eta horietara egokitzen egiten dugu ahalegina. Esate baterako, UBI ez zen ikasketa kurtso bat, ez zuen proiektu kurrikularrik; unibertsitatean sartzeko azterketa prestatzeko eta pasatzeko ikasturte bat baino ez zen.



“ **Testu liburuak erabiltzea egokia da informaziorik ez dagoen gizarte batean edo informazioa lortzea oso zaila den gizarte batean. Baina informazioz gainezka gauden gizarte honetan, hor egiten ez den zerbait egin behar dugu eskolan. Zer ez da egiten gizarte horretan? Informazio hori guztia kritikoki aztertzen ikasi.** ”

Kanpora begiratzeari utzi eta barrura begiratu behar dugu. Autoebaluazio prozesuak printzipio batzuk jartzeko balioko luke eta, horien arabera, ikastetxeak komunitate baten moduan funtzionatuko luke. Bertan bizitzen direnek filosofia eta hezkuntza proiektua partekatuko lituzkete. Ikastetxe horretan sartu, eta gela guztiek komunean gauza asko dituztela ikusiko litzateke; irakasleek zentroak baloratzen eta bultzatzen dituen gauzak bultzatzen dituztela gelan; bitarteko batzuk daudela, eta horiek erabiltzeko modu batzuk daudela gela guztietan; eta ikasleekin erlazionatzeko modu bat dagoela gela guztietan.

Horrela, egiten den guztiari jarraipena egiten zaio. Lehen hiru hilekoa pasatakoan zer gertatu den aztertzen da, non dauden arazoak, zerari den ondo ateratzen, zer erdipurdi eta zer gaizki... Hori administrazioari eta familiei helarazten zaie. Egitura horrekin denak dira jakitun eta denak daude inplikaturik.

Testu liburuekin oso kritikoa zara. Testu libururik gabe lan egin al daiteke?

Nik uste dut baietz, eta hala egin behar dela. Testu liburuak erabiltzea egokia da informaziorik ez dagoen gizarte batean edo informazioa lortzea oso zaila den gizarte batean. Baina egunkari bat erostera joan eta CD zientifikoak oparitzen dizkigute. Telebista piztu eta

kate tematiko pila bat dauzkagu. Museoetan heziketa programa pila bat daude. Hau da, gure inguruan toki pila bat daude eskolan lantzen ditugun gaiak buruzkoak, eta eskolan baino egunera tuago, atseginago eta hobeto.

Orduan, hori baldin bada mundua, hor egiten ez den zerbait egin behar dugu eskolan. Zer ez da egiten gizarte horretan? Informazio hori guztia kritikoki aztertzen ikasi. Informazio asko dago: ona, txarra, interesduna, okerra... Orduan, ekar ditzagun medio eta informazio horiek eskolara eta erakuts diezaiagun kanpoan inork erakusten ez diona: azter dezagun zer desberdintasun dauden informazio edo testu baten eta beste baten artean, nola ematen den informazio hori, gaurkotua den edo ez, dena kontatzen duen edo ez, zein den objektiboena eta abar. Presta ditzagun gizartean gehien beharko duten horretarako; hots, informazio asko dagoen mundu batean mugitzeko.

Hori guztia aurrera eramateko, testu liburuen ordez liburutegiak behar ditugu.

Eskolako liburutegiek ordezka al ditzakete ikasliburuak?

Bai, dudarik gabe. Baina horretarako eskolako liburutegiak baldintza onetan jarri behar dira. Begiratu bat emanez gero, zentro askotan liburutegirik ez dagoela konturatuko gara. Eta baldin badago, ziuraski oraindik eleberriz eta ipuinez beteta egongo da. Hori

ondo dago, baina ez da eskola bateko liburutegia. Literatura ikasgai bat da, eta gainerakoak zer?

Nolako izan beharko luke eskolako liburutegiak? Zer liburu eduki beharko lituzke?

Unescok eskolako liburutegietan IFLA izeneko erakunde bat du, eta zera dio: eskola guztiek eduki behar dutela liburutegia. Eskola txikienez gutxienez 2.500 ale eduki behar dituztela, azken 10 urteetan eguneratuak, eta ez 70eko hamarkadan erositakoak. Ikasleen ratioa igo ahala, kopurua igo egin behar da. Gutxienez ikasleko 10 liburu eduki behar dira. Nolakoak izan behar dute liburu horiek? Gutxienez %60 ikasgaiekin lotutako eduki kurrikularrak dituztenak, hots, zientzia jendarteratzeko liburuak, eta % 40 fikziozko liburuak. Errealitatea alderantzizkoa da gehienetan: % 90 fikziozkoak dira, eleberriak eta ipuinak, eta %10 entziklopediak eta jendarterako liburuak.

Horrez gain, esaten du fikziozko % 40 horiek ikasleekin batera aukeratu behar direla, beraien interesak eta gustuak aintzat hartuta.

Zergatik dira fikziozko liburuak jendarterakoak baino erakargarriagoak jende gehienarentzat?

Idea oker hori norbaitek zabaldu zuelako. Liburu zientifikoa astuna, aspergarria eta interesik gabe zela, alegia. Mundu guztiak irakurtzen du eleberri bat, eta irakurtzen ez baduzu, ezjakina zara. Aldiz, ba al dago saiakera liburu bat edo filosofiko liburu bat irakurtzen ari den norbait? Inorez. Jendeak uste du irakurtzea fikzioa irakurtzea dela, eta bestea lana dela, hots, bizitzako zigorra.

Patologia hori unibertsitatean ikusten dut. Ikasleei liburu bat irakurtzeko esan eta ea liburutegian badagoen galdetzen dute, fotokopiatzeko. Aldiz, eleberriei ez dute hori egiten. Ez dut sekula ikusi ikasle bat nobela bat fotokopiatzen. Eta hori logikoagoa izango litzateke; behin irakurri ondoren ez bai-

tuztu berriro irakurtzen. Liburu zientifikoa, ostera, behin eta berriro kontsultatzen ditugu. Norik eratu zuen horrelako distortsioa? Eskola gehienetan egon zen lehendabiziko liburu zientifikoa testu liburua izan zen, eta handik aurrera liburu zientifikoa = testu liburua berdinketa egin izan da. Zentzugabea da, ikaragarria, motibazioa galtzeko modukoa.

Zer iritzi duzu testu liburuen doakotasunari buruz?

Ez nago horren alde. Testu liburua doan banatuta, egiten den gauza bakarra da testu liburua derrigorrezko bihurtu. Egokiagoa iruditzen zait ikastetxe bakoitzari diru kantitate bat ematea eta berak erabakitzea ikasliburuetan edo beste material mota batzuetan gastatu nahi duen.

Argitaletxeak sutan jarriko dituzu.

Bai, noski, hortik bizi dira-eta. Azken finean, testu liburuen arazoa autoen berbera da: nolatan daude hainbeste auto hirietan? Auto enpresa asko daudelako eta hortik jende asko bizi delako. Ikasliburuekin berdin: enpresa multinazional handiak daude, globalizatuak, eta interes handiak dituzte. Badakite testu liburuek milaka haurrentzat balio dutela, eta beraz, argitaraldi handiak egiten dituzte.

Jendarterako liburuetan argitaraldiak txikiagoak dira, argazkiak eta irudiak zaindu egin behar dira, eta ordaindu. Testu liburuetan, aldiz, bi zirriborro egin eta nahikoa da. Testu liburuei argazkiak kendu, eta ez da informaziorik galtzen. Dibulgaziokoetan bai, ordea. Testu liburuetako marrazki txoroak ikusita, Marrazkiko irakasleak puskatu egin beharko lituzke, ikasten dutenaren kontraok baitira.

Nola ikusten duzu hezkuntzaren geroa, nolako izango den ez dakigun etorkizuneko gizarteari begira?

Mundu liluragarria da. Ni baikorra naiz. Gauzak hobera doazela ikusten dut, berrikuntzak aurrera eramaten di-

tuzten irakasleak badaudela. Medikoa bezalakoak izan behar dugu: oso zehatzak analisisetan, jakin arazoak ditugula, baina irtenbideak dituztela ere bai. Arazo horiek konpontzeko ebakuntza batzuk egin daitezke, eta botikak eta teknikak beharko dira gaixotasun horiek tratatzeko. Medikua batek ez dizu esango "gaixotasun hori sendaezina da". Esango dizuna beste hau da: "oraindik ez dakigu sendatzen, baina ikertzen ari gara eta sendagarria izan behar du". Hori egin behar dugu geuk ere. Arazoak egon badaude, baina agian beste batzuek irtenbidea aurkitu diote. Ezagut dezagun. Horregatik dira garrantzitsuak esperientzia horietaz hitz egiten duten aldizkariak, liburuak eta abar. Aprobetxa dezagun elkarren esperientzia. XII-XIII. mendeko filosofo batek hala zioen: "gehiago dakigu eta urrutirago begiratzen dugu, ez gure aurrekoak baino azkarragoak garelako, baizik eta haiek egindako guztien bizkarrean goazelako. Eta bizkarrean goazenez, gorago gaude eta gehiago eta urrutirago ikusten dugu, gehiago dakigu".

Azkenaldian hizkuntza teknokratikoa, teknikoa, intelektuala sartu zaigu gure lanbidean eta hizkuntza politikoa alde batera utzi da. Baina eskola instituzio politikoa da, zeren politika pertsonen arteko harremanetaz hitz egitea da, erlazionatzeko moduez... Hori desagutzen ari da, batez ere alderdi kontserbadore hizkuntza teknokratikoa sartzen joan delako eta pertsona gizabanako moduan begiratzen, aztertzen eta aipatzen duelako.

Sestaotik Madril eta Turkiara, eguzki eklipseen atzetik

Sestaoko Angela Figuera BHI

Maiatzaren hasieran Donostia-ko Zientziaren KutxaGunean EXPERIMENTALDIA izeneko Zientziaren I. Azoka antolatu zen. Euskal Herriko zortzi ikastetxeetako ikasleek euren esperimenduak erakutsi zituzten, eta tartean Sestaoko Angela Figuera BHIkoek. Iaz ikusi zituzten bi eguzki eklipseen inguruko esperientziaren berri eman ziguten mahaian topatu genituen irakasleak eta ikasleak.



Urtero, sei hilabeteko tartean, bi eguzki eklipse gertatzen dira gutxienez, baina horietako batzuk partzialak dira. Eklipse guztiak 18 urtean behin errepikatzen dira, nahiz eta leku desberdinetan errepikatu, eta horietako 25 erabateko eklipseak eta eraztun itxura-koak izan ohi dira. Europan mende bakoitzean gutxi gorabehera 18 eklipse ikusten dira, eta horregatik, oso zaila da bi elkarren segidan ikustea. Azken aukera duela mende batzuk izan ondoren, pasa den ikasturtean horretarako parada izan zen.

Hala, Europan lehen aldiz, ikasleek ikasturte berean bi eklipse ikusteko aukera izan dute. 2029. urte arte errepikatuko ez den gertaera berezi hau aukera aparta izan da Angela Figuera ikaste-


txeko Astronomia ikasleentzat. Halako fenomenoaz profitatuz, ikastetxe horrek Europa mailako proiektu bat sustatu zuen. Baionako eta Bizkaiko ikastetxez gain, estatu espainiarreko, Erromako eta Turkiako beste hainbat ikastetxetako gazteek parte hartu zuten. Helburua zera zen: ikastetxe bakoitzak gai hori lantzea eta eklipse bakoitza ikusteko irteerak egitea, ondoren gaia lantzen jarraitzeko. Web gune bat sortu dute, eta ikasleen esperientziak, argazkiak eta lanak jasotzen dira bertan.

Beraz, Angela Figuerako Astronomia ikasgaiko ikasleak, ikasturtea hasi eta hilabetera, Madrilera abiatu ziren, beharrezko guztia hartuta. 50 bat laguneko autobusa bertaratu zen, eta han egon ziren bi egunean, une bereziko

prestatzen. “Gurekin eraman genituen teleskopioa, eklipsea ikusteko betaurrekoak eta baita solaskopioa ere. Oso esperientzia polita izan zen. Eklipsea eratzun formakoa zen eta oso bitxia izan zen, adibidez, zuhaitzen itzalei behatzea eta abar... Bederatzi t´erdiak inguruan hasi zen, eta hamarrak inguruan amaitu”, aipatu digu proiektuan parte hartu zuen ikasle batek. Madrilen eklipsea urriaren 3an izan zen, eta era berean, talde bizkaitarra martxoan Turkiara joateko prestatzen hasi zen.

Hasieran Turkiako ikastetxeren bategin trukea egitea zuten helburu, ikasleek bidaia ordaintzeko izango zituzten arazoak aurreikusita eta esperientziari zuku gehiago ateratzeko. Dena den, azkenean zailtasunak zirela-eta, trukea ezin izan zen aurrera eraman. Azkenean, zortzi pertsona abiatu ziren Antalya-ra, Turkiara, sei ikasle eta irakasle bi. Bertan, martxoaren 29an, erabateko eguzki eklipse bat ikusi ahal izan zuten, “ikusgarria” beraien hitzetan. “Kasu honetan ere zorte handia izan genuen eguraldiaren aldetik eta lerro zentralera joan zirenek arazorik gabe ikusi zuten eklipsea. Ahaztezina eta hunkigarria izan zen esperientzia: eguerdian gaua heltzea, aurretik zarataka zebiltzan txorien bat-bateko isiltasuna, eguzki beltza, koroa, eguzkiaren eta itsasoaren itxura berezia, argiak piztuta, Artizarra zeruan goian, tenperaturaren jaitsiera, han zeuden beste pertsona batzuekin zurrara partekatzea... denborak era-

**Liburuak utzita,
zuzen-zuzenean ikusi
zituzten eguzki eklipseak
urriaren 3an Madrilen
eta martxoaren 29an
Antalyan (Turkia).**



mango ez dituen sentsazioak izan ziren” diote esperientzia bizitutako ikasleek.

Esperientziak bizi ondoren, argazki oro aztertu, fase batzuk eta besteak deskribatu, horma-irudiak egin eta guztia Interneten partekatzen dute proiektuan parte hartu duten guztiek. Hala, leku bakoitzean nola ikusi zen jakiteko eta besteen esperientziak ezagutzeko aukera izan dute astronomo gazteek. Informazio oro, www.eurek0506.cielo.org webgunean dago ikusgai. Ez dago duda izpirik, ikasle horiek liburuan ikusi izan balute baino askoz hobeto ulertu dituztela prozesu horiek, eta betiko gogoan izango dutela. “Espero dugu behaketa ziragarri hauek ikusteko aukera aprobeztatu eta gero, zientzia eta naturaren alde sortutako jarrera positiboak eragina izatea gure gazteen gain” dio irakasleak.

Nahiz eta hasiera batean zentro gehiago joatea planteatzen zen, Sestaoko Ikastetxea izan da proiektuan parte hartu duten 10 ikastetxeetatik biak ikustera joan den bakarra. Aipatu beharra dago, ikastetxe horretan badirela 20 urte hautazko ikasgai hau lantzen dela, eta horrek bere fruituak eman ditu: lan-keta politikak egiten dituzte, eta horietako batzuek estatu mailako sariak jaso dituzte. EXPERIMENTAlDIAn, eklipsearen esperientzia kontatzeaz gain, eguzki sistemako astroen mugimenduak aztertzeke eginiko hainbat maketa aurkeztu zituzten. ●

EXPERIMENTAlDIA

ZIENTZIAREN I. AZOKA

- Zientziaren KutxaGuneak antolatutako azoka.

- Helburua da jendeari zientzia eta teknologia hurbiltzea ikasleen esperientzien bidez.

- Azokan egindako jarduera ludiko-zientifikoak: ikasleek egindako esperimentu zientifikoak, erakustaldiak, bonsai erakusketa, sua itzaltzeko metodoen erakustaldia, jumping, aerotrin eta bikelooping, Arroxalinen lorea xaboi burbuilen ikuskizuna, segway zirkuitua, Magdeburgoko hemisferioaren esperimentua eta abar.

- Ludikotasuna eta didaktikotasuna batu zituen azokak.



Euskarazko lehen trantsizio gela Nafarroan

Iruñeko Hegoalde ikastola



Asun LARRETA

TRANTSIZIO GELAKO TUTOREA

Ana OLAIZ

IKASTETXEKO ORIENTATZAILEA

Garapenaren nahaste orokortuak zituzten ikasleek, orain arte, aukera bakarra zuten Nafarroan: zentro espezifikoko batera joatea. Alegia, zentro arrunta utzi (sozializazioarako testuinguru egokiena galduz) eta gaztelaniaz ikasi behar zuten (euskaraz halako zentrorik ez baita).

Hegoalde ikastolatik bertatik, eredu berri bat sortu zuten guraso zein hezitzaileek: ikasleok euren zentroan eta euskaraz jarraituko zuten, baina era berean, gela mailako programazioak uneoro erantzun beharko zien bakoitzaren premiei. Hala ireki zuten, 2004/2005 ikasturtean, “Trantsizio Gela”: beharrezkoa den luxu bat.

Trantsizio Gelan hiru ikasle eta bi hezitzaile daude, eta taldeko jardueren bidez bakoitzaren premiei eta erritmoei erantzuten saiatzen dira. Ikasle hauen frustrazio maila baxuagoa dela nabaritu dute jada, uneoro taldean aktibo egoteko aukera dutelako. Aldiz, gela arruntean ordu asko emanez gero, azkenean denbora pasa egoten dira, presentzia pasiboan. Halakoetan frustrazioa ere handia izaten da, ikasleak ikusten duelako ez dela ailegatzengela arrunteko martxari jarraitzera. Horregatik, nahiago dute ordu gehienak Trantsizio Gelan eman, eta erreferentzia gelara doazenetan izan dadila euren benetan parte har dezaketan jardueran aritzeko, “zeren guk ez dugu nahi bere adinekoen ondoan egotea –dio Ana Olaizek–, baizik eta ondoko horrekin aritzea”.

Horrek heziketako eragile guztien artean koordinazio handia izatea eskatzen du. Gela arrunteko tutorearekin ordutegiak adostu eta ekintza egokiak planifikatu behar dira. Gainera, ikasle bi Etxarritik eta Larraintzartik datoz, eta beraz, euren erreferentzia gelak ere badituzte han (arratsalde herriko eskolara doaz): zentro haiekin ordutegiak moldatu behar izan dituzte, eta hango tutoreekin programak finkatu. Garrantioak ere egokitu behar izan dituzte, jantokioekin elkarlanean aritu (eguneroko egin behar horiek garrantzia berezia hartzen baitute ikasle on autonomia garatzeko). Eta zer esanik ez gurasoekin etxea eta ikasgela lotzeko egin behar den lanaz.

Bestetik, legez definitu gabeko esparrua da hau. Beraz, bidean arazoak sortu ahala soluzio propioak asmatu behar izan dituzte, etengabe: programazio mailan, ordutegian, administrazio lanetan... dena baitzen, lege mailan, putzu ilun.

Haurrarendik abiatu, ez ohiko curriculumentik

Trantsizio Gelan zer programazio landu zehaztea ez zen samurra izan. “Hasieran denbora asko galdu genuen lan ildo batzuk ohiko curriculumentik atera nahian”, kontatzen du Anak. Izan ere, behar bereziko curriculumik ez dago, eta ohiko curriculumak ez da erreferente batere egokia. “Gaitasunak izan behar baitu abiapuntua –Asun Larretaren hitzetan–, eta ez arloak. Gaitasun

komunikatiboak, afektiboak, motorrak eta kognitiboak hartu genituen ardatz, eta ez ohiko curriculumak zehazten dituen mailatan lantzeko, baizik eta haur horien gaitasun propioetan zentratuta”.

Ikasle bakoitzak oso ezaugarri desberdinak ditu, baina ikusi zuten premia oinarrikoenak alderdi berean zituze- la: komunikazioan, egituratzeko gaitasunean eta autonomian. Beraz, gelako jardunak premia bateratu horiei erantzun beharko zien. Interesguneak sortu zituzten hala: “Interesgune hurbilak, eguneroko bizitzakoak eta funtzionalak. Gainera, abstrakzio mailan ezin dugulanik egin, beti izan behar du zerbait egitea. Horrek ere errazten digu bakoitzaren adimen mailari eta eritmoari jarraitzea”, zehazten du Anak. Bakoitzaren gaitasunak multzokatuz lortu dute



programazioak ordenatzea eta ebaluaketarako ere irizpide zehatzak izatea, helburu jakin batzuen baitan.

Gakoa: etxean komunikazio gaitasunak garatzea

Garapenaren nahaste orokortuak dituzten haurrentzat, mesede al da bigarren hizkuntzan ikastea? Adituen hitzetan, hizkuntza trastornoak dituzten haurrekin ez da komeni bigarren hizkuntza sartzea. Hegoalde ikastolan halarik ez dute. Oraingoan, bigarren hizkuntzan murgiltzeak on egin

diela ikusten dute: bai intelektual mailan eta baita afektiboki ere (ikasleok hizkuntzarekiko eta ikastolarekiko hartu duten atxikimendua oso garrantzitsua baita). Ikasle bakoitza mundu bat den arren, Anaren ustez, banakako kasu guztietan arrakastaren giltza hau da: familia eremuan komunikazio gaitasunak lantzen diren edo ez. “Arazoa ez baita hizkuntza, baizik eta bakoitzaren gaitasun komunikatiboa”.

Ikasleak pozik daude, baita gurasoak ere. Irakasleak bide berri honek zer emango daude, ilusioz. ●

Ezaugarriak

* Garapenaren nahaste orokortuak dituzten ikasleentzat da. Komunikazio arazo larriak dituzte, eta ia beti adimen atzerapenarekin du lotura.

* 8-11 urteko hiru ikasle daude, eta bi irakasle (tutorea eta laguntzailea).

* Komunikazio gaitasunak eta autonomia garatzea da helburua. Interesgune bat hautatzen da, funtzionala erabat, gelako programazioaren ardatz. Programazio horren barnean ikasle bakoitzak bere lanketa berezitua du.

* 4 txoko daude: harrera, joko libre, mahai jokoa eta informatika.

* Zentro arruntaren barnean dago. Ikasle bakoitzak bere erreferentzia gela du, adinaren arabera, eta ikasgai jakin batzuetan hara doa: musikan, plastikan, gorputz heziketan eta tailerretan. Irakasle laguntzailea ondoan du beti.

* Legez definitu gabeko esparrua da. Ikasle on ordutegi, programazio eta abarrik ezin dira txosten estandarretan sailkatu.

* Euskaraz eta ohiko zentroan ikasteko aukera dute. Orain arte, ikasleok zentro espezifiko batean sartzea beste biderik ez zuten. Zentro horiek gaztelaniazko eredu soilik eskaintzen dute.

* Laguntza handia eman diete CREENAK (Centro de Recursos de Educacion Especial de Navarra), eta Mutiloako ikastetxeak (gaztelaniaz, gisa honetako gela duen ikastetxe bakarra Nafarroan). - Gela barruan irakasle bat (tutorea) eta zaintzailea aritzen gara. Azken hori ez da irakaslea.

Txokoak:

- 1- Harrera-Aho hizkuntza
- 2- Joko libre
- 3- Mahai jokoa, mahai lana, plastika
- 4- Informatika

Gelaren sorrera:

Hegoaldeko ikasle bati soluzio bide emateko nahian, CREENAKoek proposatuta, Iruñerrian egoera bereberko beste 3 kasu zirelarik, gela irekitzea erabaki zen.

MIRA DABIT ETA JOSSI BERTAL:

“Oso garrantzitsua da aktibo izatea, ez soilik gatazka jakinetan, orokorrean baizik”

lazio ikasturtean Euskal Herriko hainbat ikastetxetan ibili ziren hitzaldiak emanez Mira Dabit palestinarra eta Jossi Bertal israeldarra. Israelen okupazioaren kontrako mugimendu bakezaleko kideak dira. Israelarrak eta palestinarrek elkarlanean ari dira aipatu mugimenduan: harresiaren aurkako manifestazio baketsuak egiten, nazioarteko ekintzaileekin harremanetan jartzen, hainbat herrialdetan hitzaldiak ematen... Oraindik taldekide gutxi dira, baina ziur daude lagun gehiago hurbilduko direla eurak proposatzen duten alternatibara. Mezu nagusi bat zabaldu zieten gazte euskaldunei: aktiboak izan behar dugula munduan dauden gatazkek konpondu nahi baldin baditugu. “Zeren arazoak denonak dira, eta Israelen eta Palestinen artekoa ere bai. Zuen laguntza ere behar dugu”.

Nolakoa izan da zuen esperientzia Euskal Herriko ikastetxeetan?

Jossi Bertal.- Hemen, Euskal Herrian, ikasleak oso interesatuta agertu dira. Gatazka ulertu nahi dute, ikasi... baliteke beraiek ere gatazka bat bizi dutelako izatea.

Mira Dabit.- Oso esperientzia interesagarria bizitzen ari naiz. Ez nuen asko ezagutzen Euskal Herriko gatazka, eta gauza asko esplikatuz dizkizate. Orain zertxobait gehiago dakit. Berta-



ko jendea ezagutzea, beraiekin hitz egitea... oso interesgarria da. Euskaldunak oso interesatuta agertzen dira gure egoerarekin.

Egon al zarete Euskal Herriaz gain beste herrialde batzuetan hizlari gisa?

M.D.- Bai, Ingalaterran, Italian, Zipren, Frantzia, Alemanian, Turkian...

J.B.- Baina ez da inoiz hain intentsiboa izan.

Zein da hitzaldi hauen bitartez igorri nahi duzuen mezua?

J.B.- Lehenik eta behin, palestinarren eta israelarren arteko gatazka ez dela arazo erlijioso edota arrazista ulertarazi nahi diogu jendeari. Okupazio bati buruz ari gara, eta hori da gatazka, okupazio militarra.

Guk zabaldu nahi dugun mezua zera da; kritikoa eta aktiboa izatearen ga-

rrantzia, ez soilik Palestinarekiko, baizik eta edozein gauzarekiko. Errepresio ororen aurka esnatu eta zerbait egin behar da. Jendea mugitzera eta inplikatzera animatu nahi dugu.

Eta lortzen al duzue hori gazteen artean? Lortu al duzue hemen Euskal Herrian?

M.D.- Atzo esan ziguten, hemen Euskal Herrian, komunikabideetan oso sarri agertzen dela zerbait Palestinari buruz. Gehienek zerbait entzun dute gatazkari buruz, nahiz eta asko ez izan. Beste herrialde batzuetan ezjakintasun nabariagoa sumatu dugu.

Hemengo kultura desberdina iruditzen zaigu. Jendeak interes handiagoa du, agian hemen ere independentziaren aldeko mugimendu bat badelako, euskal presoak herrira ekarri nahi direlako eta abar. Halako harreman bat ikusten dut.



Bata palestinarra eta beste israeldarra izanda, arazo berdinari buruz hitz egiten al duzue zuek? Ikuspegi bera al duzue?

J.B.- Bai, okupazioari buruz ari gara, Israelek egiten duen zapalkuntzari buruz. Ez da arazo erlijioso bat. Une honetan hori aldatzea oso erraza da: Israelek okupatutako lurraldeetatik alde egin beharko luke, eta palestinarrei dagozkien eskubideak aitortu beharko lizkieke. Gatazka konpontzeko ezinbestekoa da hori.

Beraz, zein litzateke irtenbidea zuen iritziz?

J.B.- Irtenbidea? Israeldarrak eta palestinarrek elkarlanean jardutea, elkarrekin bizitzea... nahi nuke. Ez dakit, errepublika federal batean edo zeinek daki. Baina berdintasunean. Eskubide sozial berdinekin. Hori ikusi nahi nuke.

M. D.- Nik uste dut bakoitzak bere estatu propioa izan behar duela. Ez dut uste estatu bakar bat soluzioa denik. Gainera, badirudi palestinar gutxiengo txiki bat dela estatu bakarra irtenbideztat nahi duena.

J. B.- Israeldarrek ere ez dute nahi estatu bakarra elkarrekin, zeren botere asko galduko bailukete. Nire iritziz, palestinarrek ez dute estatu bakar bat nahi, ez horren kontra daudelako, baizik eta ezinezkoa ikusten dutelako. Denan den, oraingoz bi estatuen irtenbidea ezinezkoa delakoan nago, Israelek ez baitio Palestinari independentzia emango. Finean, irtenbide guztiak dira irrealak, estatu bakarra ala estaturik ez.

Orduan?

J. B.- Gatazkak iraun egingo du, egunen batean nazioarteko komunitatea esnatu arte eta Palestinan giza eskubideak bermatzeko zerbaitegin arte. Israeli nazioarteko erabakiek eragin egin behar diote, behartu egin behar da. Hori gertatzen den egunean, giza eskubideak bermatzen diren egunean, mundua oso desberdina izango da, eta ez soilik palestinarrentzat, baizik eta guztiontzat.

M. D.- Ez hori soilik. Palestinarrak onartu beharko dira, ahotsa eman, geure eskubideak aitortu, beste irtenbide batzuk bilatu...

Guretzat, palestinarrentzat, oso zaila da soldaduekin bizitzea, ez da arazo fisiko bat soilik, psikologikoa ere bada. Horregatik diot jendea zorutzen ari dela, jendea hiltzen ari da... Nola esan... Palestinari so eginez gero, ez dago non begiratu, ez dago zer begiratu. Edonora begiratzen duzula ere, okupazioa ikusten duzu. Ez dago askatasunik. Beraz, kontua ez da zoraz gaudela, ez dago beste aukerarik.

Jossi, zu israeldarra izanik, eta zu, Mira, palestinarra izanik, zein desberdintasun daude zuen eguneroko bizitzan?

J. B.- Hasteko, nik ez dut okupazio militarra bizi izan. Tel Aviven bizi naiz eta bertan nahi dudana egiteko aukera daukat. Ez daukat gatazka zertan bizi, begiak itxi ditzaket, errealitateari entzungor egin eta primeran bizi. Askatasuna daukat, nahi dudana egiten dut,

Hemen Euskal Herrian badago hainbat talde eta sindikaturen arteko sare bat, MEWANDO. Talde horietan parte hartzea oso garrantzitsua da.

nahi dudana ikasten dut, nahi dudanean Europara joan naiteke dibisa beharrik gabe. Europako herrialdeetan egiten den antzeko bizitza egiteko aukera daukat, baina nik gatazkan aktibo egitea erabaki nuen. Ni neu izan nintzen gatazkaren parte izatea aukeratu zue-na, ezin baitut bestaldera begiratu.

M. D.- Nire kasuan, nik ez dut beste palestinar askok sufri dezaketean bezainbeste sufritzen. Eskola on batera joan nintzen, unibertsitatera... esan dezaket nire mikrogizartean askea naizela. Baina beste palestinar askok ez, ez dute aukerarik, ez eskubiderik, ez askatasunik.

Bizitza ez da normala Palestinan, eta egunerokoan igartzen da hori. Check point edo kontrol gune asko pasatu behar izaten ditugu egunero. Nire etxetik unibertsitatera 20 minutu daude autoz, baina bidean zulo handi bat dagoenez ezin da autoz joan. Zubirik gabeko ibai bat zeharkatu nahi izatea bezala da. Ondorioz, izugarritzko itzulia egin behar da. Kasu horretan, ez dago polizia kontrolik, baina bai beste oztopo handi bat. Oso umiliagarria da.

Israel egiten ari den harresiak ere eragin handia du eguneroko bizitzan. Palestinar askok harresiaren bestaldera joan behar dute lanera, eta israeldarrek ixten eta irekitzen dute atea. Berez goizeko 6:00etan irekitzen dute, baina bazuetan ez dute zabalitzen 8:00ak arte. Edozein aitzakia erabil dezakete horrelakoak egiteko.

Osasun zerbitzuak oso egoera txarrean daude, bereziki kanpaleku itxietan, botikak eta sendagileak nekez iristen baitira.



Mira DABIT: “Palestinan guztiontzako hezkuntza behar da, heziketak ematen baitu buru askatasuna”

Zaila al da palestinarrek hezkuntza jasotzea?

M. D.- Ez da hain zaila, baina nire iritziz, mundu guztiak joan beharko luke bai eskolara, bai batxilergora eta bai unibertsitatera. Batzuk kartzelatik atera eta unibertsitatera joaten dira. Uste dut une honetan hezkuntzak berebiziko garrantzia duela guretzat. Palestinak hezkuntza behar du. Badaude dirulaguntza batzuk ikasteko, kanpora ateratzeko... baina hauek batzuentzat soilik dira, eta hemen guztiontzako hezkuntza behar da. Informazioari eta hezkuntzari eman behar zaie indarra, gizon eta emakume guztiontzat beharrezkoak baitira, horiek baitira gure nortasunaren eta independentziaren oinarri. Askatasuna palestinarren barrutik sortuko da, ez kanpotik, baina buru askatasuna heziketak ematen du.

Ez al duzue uste, era berean, israeldarrentzat ere oso garrantzitsua dela hezkuntza, gatazkaren kontzientzia hartze aldera?

J. B.- Bai, baina balio nazionalistak transmititzeko soilik erabiltzen da, ez gatazkaren kontzientzia zabaltzeko. Eskolan nengoenean ezin nuen hitz egin eta hitzaldirik eman Euskal Herrian egin dugun moduan. Institutu barruan ezin da jarduera politikorik egin.

Horrez gain, neoliberalismoaren eraginez hezkuntza sistema suntsitu egin da, pribatizatu egin da. Irakasleek gero eta soldata baxuagoak dituzte. Garai batean hezkuntzak balio handia ba-

zuen ere, gaur egun ez, gobernu eskuindarrek zaildu egin dute.

Zergatik izan aktibo?

J. B.- Edozeinentzako galdera aproposa da, galdera psikologikoa. Ni gatazkan inplikatu nintzen, zeren balioetan hezinaute, askatasun balioetan. Hasieran, mugimendu bakezaleetan parte hartzen hasi nintzen, eta politikopoliki, lurralde okupatueta egoeraz eta Israelen historiaz jabetzen joan nintzen. Pixkanaka jendea ezagutzen joan nintzen, gero eta palestinar gehiago, eta gatazkaren parte aktibo izaten hasi nintzen. Gaur egun, palestinarrekin ere ibiltzen naiz, lagun asko ditut eta zerbait hartzera joaten naiz bai palestinar lagunekin eta bai israeldar lagunekin, Ramalan nahiz Tel Aviven. Bi gizarteekin harremanetan nago.

Ez da, ordea, israeldar guztien aukera. Israeldar askok ez dute inoiz palestinar bat ikusi. Palestinarrek ere israeldarrek ez, soldadu edo agintariren bat ez bada. Ez dute elkar ezagutzen.

Taldea handitzen al doa? Gero eta gehiago al zarete?

Egia aitortu behar badut, aktibista gehienak ezagutzen ditut eta denen mugikorak dauzkate... beraz, agerikoa da gehiegi ez garela. Baina egunetik egunera gehitzen doan kopurua da, eta handitzen doa. Halere, oraindik ez da nahikoa.

Zer hizkuntza darabilzue zuen artean?

J. B.- Gu ingelesez mintzatzen gara gure artean. Mirak hebraiera ulertzen du, eta nik arabiera pixka bat badakit, baina normalean ingelesez mintzatzen gara.

Normalean, arabieraz judu gutxik dakite. Hebraieraz, oster, palestinar gehiagok dakite, izan ere, kontrolatan, karteletan... hebraieraz hitz egiten baitaie. Okupazioko hizkuntza da hebraiera.

Klase altuagoko hainbat inguruneetan ingelesez ere mintzatzen da. Israeldar gutxik dakite arabiera, agian segur-

tasun sektoretako batzuek, edo okupatzaile batzuek edo aktibista bakezaleek.

Zein iritzi daukazue Hamasen gobernuari buruz?

M. D.- Egia esan, etorkizun hobe ikusten dut. Ni neu palestinarra naiz baina ez naiz musulmana, kristaua baizik. Hamasek katoliko askoren botoa jaso zuen azken hauteskundeetan arlo sozialean lan egin nahi duelako. Orain jendearentzat ari da lanean. Hamas lehendabizi alderdi nazionalista da, eta gero erlijioso.

Edonola ere, alderdi bat edo beste egoteak ez du alde handirik gatazkaren konponbiderako. Nazioartean presiorik egiten ez den bitartean, ez dira palestinarren eskubideak bermatuko. Gatazkak ez du hoberaingoa big bang bat gertatu arte.

J. B.- Ez, Hamasen gobernuan Palestinako gatazka ez da lehentasuna. Nire kasuan, nik herri laiko bat nahi dut, eta Hamas erlijioso da. Dena den, aurreko gobernu baina askoz hobe dela uste dut.

Israeldar hauteskundeetan pentsatzen nuena baino askoz emaitza positiboagoak izan dira, talde sozialistek indar gehiago hartu dute. Israel barruan, egoera soziala nahiko hobetuko dela koan nago, baina palestinarrentzat ez dago alderik, ezker edo eskuineko al-



Jossi BERTAL: “Israelen balio nazionalistak transmitzeko soilik erabiltzen da hezkontza”

derdiekin, aldatzen den bakarra arrazoibidea da. Ez dago ekintzarik.

Zer gertatzen da nazioarteko gainerako herrialdeekin?

J. B.- Beno, egunen batean europar komunitatea esnatu eta zerbait egitera ausartuko balitz... Adibidez, estatu espainiarrak esango balu: “Herrialde bat nazioarteko legeak urratzen ari da eta zerbait egin behar dugu”...

Irakek Kuwait okupatu zuen, eta mundu guztia altxatu zen; Ameriketako Estatu Batuek Irak okupatu zuten, eta denek babestu zuten!... Baina Israelek 40 urte daramatza herri bat okupatzen, eta inork ez du ezer esaten, ez zaio inori axola.

Nola esan, mundu guztiak daki Iranez arma nuklearrak dauzkala eta demokrazia dagoela, eta Israelek ere badauzka azken 40 urteetan. Baina non daude nazioarteko ikuskariak? Nazioarteko legeak urratzeko posible den guztia egiten ari da Israel, eta inork ez du ezer egiten. Hori da norberak bere herrialdeari egin beharreko galdera. Ez dakit europarrek ulertzen duten; arabiar jendearekin (ez gobernuekin) izango dituzten harremanak eurek Ekialde Hurbilean egiten dutenaren baitan dago. Europarrak dira herrialde arabiarretako diktadurei eta monarkiei eta Palestinako okupazioari eusten dietenak.

Eta guk gure agintariei sostengua ematen diegun bitartean, ez dut ulertzen jendea zergatik harritzen den batzuek beren haserre eta amorrua agertzen badute. Terrorismoa ez da eran-



tzuna, baina ez luke inorentzat arraroa izan behar gorrotoa egoteak. Mahomaren karikatura ez da arrazoi bakan bat halako altxamendua sorrarazteko. Ziur aski duela sei bat urte gertatu izan balitz, ez zukeen erantzun bera izango. Baina orain gertatu da, eta jendea haserre dago. Europarrek eta Amerikako Estatu Batuek demokraziari eta giza eskubideei buruz hitz egiten dute, baina beren ekintzek ez dute gauza bera islatzen.

Irrimarren aurkako manifestazioak ez ziren soilik horiek salatzeke, Mendebaldearen zapalkuntza eta arrazakeria salatu ziren. Eta oraingoan kale agerraldiak izan badira ere, norik daki zer izan daitekeen hurrengoan! Eta, egia esan, europarren nahia elkarrekin harreman onak izatea izan beharko litzateke.

M. D.- Baina Mahomaren irrimarra ez zen soilik hainbat frustrazioen adierazpena izan. Errespetu kontua da. Islamean ezin da Mahoma marraztu, ez dago inor baimenduta horretarako. Ez bera margotzeko, ezta berari buruz ezer margotzeko ere. Beraz, errespetu falta handi gisa sentitu zen hori. Horregatik, ez zen diskriminazio soil bat, begirune falta handia izan zen.

Eznago adoskontu hori adierazpen askatasunarekin lotzearekin, izan ere, denok dakigu zeinen itxia den islamismoa. Karikaturan, bonbak eta neskak agertzen ziren Mahomaren ondoan.

Zer egin dezakegu europarrok gatazka honetan?

J. D.- Alde batetik, lehen esan bezala, Israelgo produktuak ez erosi, kontsumitzaileak garen aldetik ez zaie eman behar ez dirurik, ez boteririk. Badugula boterea eta boikotak eragina duela sentitu behar dugu. Bestetik, presioa egin behar da. Adibidez, hemen, Euskal Herrian, badago hainbat talde eta sindikaturen arteko sare bat, MEWANDO izenekoa. Oso aktiboak dira, eta indarra egiten dute nazioarteko zigorrak ezartzeko. Talde horietan parte hartzea garrantzitsua da, edota kale agerraldietara joatea.

Dena den, nik uste dut Israel-Palestina ez dela kasu bakan bat, finean globalizazioarekin eta arrazakeriarekin konektatzen duten gatazkak dira. Horregatik, neoliberalismoaren aurkako, giza eskubideen urraketaen aurkako edota arrazismoaren aurkako edozein ekintza gatazkaren aurkako borroka-ren parte da. Azken batean, sistema globalizatu bakar bat delako Palestina zapaltzen duena, hirugarren mundua zapaltzen duena, eta Mendebaldeko langileak zapaltzen dituena, eta horren aurkako edozein ekintza egiten dugunean, edota giza eskubideak bermatzeko aldarrikapenak egiten direnean, Palestinari laguntzen ari gara. Oso garrantzitsua da aktiboa izatea, ez soilik gatazka jakinetan, orokorrean baizik. ●

Haur txintxoaren eredia maite al du pedagogiak



Gela hartan 25 haur elkartzen ziren egunero. Haietatik hiru oso bereziak ziren, gainerakoek baino zarata eta mugimendu gehiago sortzen zuten; gehienetan ez zeuden ados irakasleak eskatzen zuenarekin, iniziativa hartzen iaioak ziren, beti zerbait asmatzen zebiltzan... Gela hartan bazegoen baita ere dozena erdiko talde txo bat ia inoiz atentziorik ematen ez zuena eta irakaslearen agindu guztiak begi-itxiz betetzen zituen. Hauek irakaslearen zigorrik ezagutu gabe utzi zuten eskola. Beste hiru haiek, alderantziz, egunero errieta eta zigorren bat jasotzen zuten. Irakasle berria pentsakor gelditu zen.

37 urtez aritu naiz irakaskintzan: 9 Frantzian, Pau eta Lourdes tartean dagoen Nay-ko St. Joseph ikastetxean eta 28 Santo Tomas Lizeoan. Galdera horrek adierazten duen egoeraren aurrean aurkitzen nintzen egunero, klase oro; gela guztietan aurkitu izan ohi ditut ikasle zintzoak, bihurriak, trebeak, motelak, argiak, motzak, krudelak, solidarioak, langileak, alferrak...

Nire filosofiaren arabera, galdera



Luis ARANALDE

APAIZA ETA IRAKASLE OHIA

hori, hau da, “ haur txintxoaren eredia maite al du pedagogiak?”, aldatu egingo nuke: “Pedagogiak, pedagogoak, irakasleak maite al du haurra, maite behar al du haurra?”. Izan ere, ez dut ezagutu guztiz bihurria, gaiztoa, alferra den haurrik, ezta guztiz zintzoa, langilea, argia den gaztetxorik ere.

Haur bakoitza, pertsona oro bezala, desberdina da une bakoitzean, bizi duen zirkunstantziaren arabera. Langile onena ere gau txar bat igarota etortzen bada ikastolara, ez da lanean sutsu arituko. Ostiraleko azken orduan, gertu da goen asteburuaren haizearekin, lan gu-

txiago egiten dute haurrek, oro har. Santo Tomas Lizeoko nire azken urtean ostiraleko azken orduan Frantsesa ematen nien 4. DBHko gaztetxoei. Gorriak eta beltzak ikusten nituen haiei lan egina-razten; saiatzen nintzen eskola ordu hura ahalik eta biziena, dinamikoena bihurtzen; baina, ez nuen fruitu oso oparorik lortzen. Eta ostiral guztiak ez ziren berdinak izaten eskola hura parranda bihurtzeko irrika horretan: inauteri aurrekoa bazen edo Gabonen atarikoa, orduan eta lanerako gogo gutxiago. “Yo soy yo y mi circunstancia” esaten zuen Ortega y Gassetek. Beraz, zirkunstantzia aldatzen den neurrian, nire izaera osoa desberdina bilakatuko da. Zenbat aldiz ez zaigu gertatu irakasleoi txintxoaren jotzen genuen ikaslea bat-batean guztiz “desmadratzea”? Ez dakigu zergatik, baina egun “tontoa” du.

Jakina, eta normala da, irakasleak gustukoa du ia inoiz arazorik sortzen ez dion haurra. Eta ez al da zilegi hori? Besterik da, irakasleak horiei bakarrik kasuegitea, horiek bakarrik mimatzea. Hain zuzen ere, hori da pedagogoen tentazioetako bat, eta ez txantxetako, gainera.

Nire galdera funtsezkoa 37 urte horietan hau izan da: nola piz dezaket aurrean dauzkadan 25-30 haur horiengan

ikasteko gogoia, jakin-mina, beren auto-estimua? Nola lagun diezaieket aurki dezaten beren nortasun paregabea, bakarra? Atzo txintxo eta gaur bihurri portatzen ari den haurrari nola lagundu gela-ko giroa honda ez dezan? Nola sortu beroiengan edo nola lagundu oinarri-ko giza balioak eskura ditzaten, hots, solidaritatea, begirunea, maitasuna, zuzentasun gose-egarria...? Nola lagundu lanean eta elkarbizitzan zoriontsu izan daitezten? Izan ere, heziketa ororen helburua zoriontasuna sortzea baita.

Irakaslearen lana paregabea bezain zaila da. Irakastea eta hezteak bere eginkizuna. Lan horretan, oinarriko printzipio batzuk garatzen saiatu izan naiz 37 urte horietan zehar. Hona hemen ni gidatu nauten barne arau batzuk:

1-Haurraren sinetsi, nahiz eta itxuraz desastre bat dirudien: bihurria, motela, kaskarina, distraita... Azkenaldi honetan ikusi dudak pelikularik ederretakoa da ideia horixe islatzen du. Irakasle guztiek ikusi behar lukete nire us-tez film hori. *Les choristes (Los chicos del coro)* (Zinema ikuskizun paregabe hori. Christophe Barratier da zuzendaria. 1949an Clément Mathieu, Musikako irakaslea eta langabezian zegoena, eskola zail bateko begirale izendatzen dute. Barnetegi bat da eta berrezitzen ari diren gaztetxo talde bat dago bertan. Heziketa sistema oso errepresiboa da. Diziiplina mantentzen oso gaizki ibiltzen dira irakasleak eta begiraleak. Mathieuk kalitate bat du ederra, nahiz eta gizagaixo samarra dirudien: gaztetxo bakoitzak gaitasunen bat edo beste badiela sinesten du eta saiatzen da ahalmen horiek garatzen etsi gabe, neurrigabeko pazientziarekin. Ezereztat jotzen zuten haur horiek beren burua, baina zaintzaile berria saiatuko da beren auto-estimua lantzen, indartzen, sendotzen. Esan beharrik ez dago, azkenean, musikaren magiaz baliaurik gainera, gaztetxo horien egoera goitik behera transformatzen duela.

Haur bakoitzaren neurrigabeko fedea behar du irakasleak eta berori transmititu haurrari. Zenbat aldiz ko-

mentatu izan dugun irakasleok zenbait ikasle erdipurdikok egin duen karrera, bizitzan izan duen arrakasta, eman duen aldaketa. Esperantza hori inoiz ez galtzea da irakaslearentzat apusturik zailenetarikoa. Ikasleak jakin behar du eta sentitu beronentzat bide guztiak edo gehienak irekiak daudela; gai dela gauza handiak burutzeko mundu honetan. Nolabait esateko, haurrak jabetu behar du bakarra dela, apartekoa, paregabea. Honetaz jabetzen den eguna, fantastikoa izango da. Ez dezala inoiz pentsa ezertarako balio ez duenik. Mundu hau tapiz bat bezala da, baina, amaitu gabea. Haur bakoitzak dauka bere partzelatxoa alfonbra horretan eta hori berak bakarrik osa dezake.

2- Hezitzailearen jokabideak, jarrerak, harreman pertsonalak dira oinarrikoenak heziketa lan horretan. Irakaskintza metodoak, teknikak, prozedurak eta abarrak oso beharrezkoak dira, ongi menperatu behar dira, baina, azkenean, ikaslea zerk markatuko du gehien? Zer oroitzapenekin geldituko da azken finean? Hezitzailearen ikusi dituen jokamoldeekin, berarekin izan dituen kontaktuekin.

Hezitzaileak berak sinetsi behar du besteari esaten eta eskatzen diona. Haurra berehala konturatzen da irakaslea kontraesan bizi den edo ez. Socrates-ek esaten omen zuen jende gehiago hezi zuela bere jokabideen bitartez, ematen zizkien lezioekin baino. Irakaslearen heldutasuna, oreka pertsonala, lanerako gogoia, puntualitatea, hurrekiko begirunea eta gertutasuna... Hori dena zaindu behar du hezitzaileak sinesgarri izatea nahi badu. Hezitzailea gidari da eta bere bizitzan gauzatzen ez badu besteari eskatzen diona, hobe lan hori uztea.

3- Balioetan hezteak izan da nire apusturik, beharbada, handiena eta erakargarriena. Jakina, haurrari balioez jabetzen lagun diezaiokegu, baina azken batean, berak bereganatu behar ditu, eta hor sartzen da norbere askatasuna: onartuko ditu edo ez guk agertzen

Irakasleak gustukoa du ia inoiz arazorik sortzen ez dion haurra. Eta ez al da zilegi hori? Besterik da horiei bakarrik kasu egitea, horiek bakarrik mimatzea. Hori da pedagogoen tentazioetako bat.



dizkiogun balio horiek zoriontasun bide gisa sumatzen dituen neurrian. Eskola gune aproposa da konturatzeke giza balioek zenbaterainoko garrantzia duten besteekiko harremanetan.

Balio guztien artean besteekiko errespetua edo begirunea jarriko nuke oinarritzat. Hori gabe, ikasleak ez du inoiz besteek esaten dutena entzuten, besteen ideiak onartzen edota ez badira giza legezkoak beraien kontra borrokatzen pertsonaren duintasuna zapaldu gabe. Nire eskola orduetan bazekiten parte-hartzea funtsezkoa zela, baina, garbi zeukaten, baita ere, egun txar bat bazuten (edonori gerta dakioke), beste lanik ez zutela oztopatu behar.

Begirune kapitulu honetan sartuko nituzke haurren arteko tratatu txarrak edo *bullyinga*. Hori da begirune ezaren ondorio larriena. 37 urte horietan ondo aski ikusi dut zein krudelak izan daitezkeen adin horretako gaztetxoak. Badira 30 bat urte gela bateko tutore nintzela Biarnoko Nay-ko ikastetxe hartan. Gaztetxo argi, gozo, gertuko bat bazegoen beste batzuen artean; baina, akats edo muga bat zuen: oso lotsatia izatea.

Bizitza kalbario bihurtu zioten ikas-kide batzuek. Zenbat aldiz hitz egin nuen ikasle horiekin, zigortu ere bai batzuetan. Dena alferrik. Gurasoek ikastetxez aldatzea erabaki zuten. Baina, hara ere jarraitu egin zion lotsatiaren "sanbenitoak" eta han ere isekak jasan behar izan zituen. Azkenean, bere etxeko gaban aurkitu zuten zintzilikatuta.

Hezitzailea gidari da eta bere bizitzan

gauzatzen ez badu besteari eskatzen



diona, hobe lan hori uztea.

Nire bizitzan ukabilkada bat eman dut: Tolosako eskolapiotan 10 bat urte nituela. “Kaxero, kaxero”, deitzen zidan behin eta berriz ikaskide batek; Gazteluko baserri batetik jaitsi berria ni eta auskalo zer janzkera eta hizkera (batez ere gaztelaniaz) nituen. Askotan esan nion min ematen zidala eta ez esateko. Baina, kasurik ez. Gogoan dut nola utzi nion ahoa odoletan. Hiru egunetarako etxera bidali ninduten, jarreran zero jarri zidaten. Baina, gehiago ez nuen entzun hitz iraingarri hura. Zenbait indarkeria sanoa izan daitekeela pentsatu dut egoera bartzuetan. Bakearen eta bakezko eredu-tzat hartzen den Jesus nazaretarrak ere ez al zituen bidali bada tenpluko merkataria? Gehiegikeria horiek 1. eta 2. DBHn gertatzen dira batez ere. Jokinen kasuak kontzientziak piztu zituen, baina *bullyinga* gehitzen omen doa.

Begirunean oinarritzen dira beste balio guztiak: gertutasuna, enpatia, solidaritatea... Besteak errespetatzen ditugu beren neurrigabeko duintasunaz jabetzen garen neurrian. Hor dago begirunezko jarreraren sekretua.

4- Ikasleak transzedentziarantz ireki, esnatu. Hitz biribil honetan sartuko nituzke: bizitzaren zentzua, erlijioa, balio espiritualak, zeinu sakratuen esanahia, erlijioen historia, mito erlijiosoa... Erlijio kultura, eta azken urtetan Frantsesa, ematen nituen Lizeoan. Beti pentsatu dut erlijio kultur zabal bat ematen ez bazaio ikasleari, bere heziketa herren gelditzen dela. Duela urte ba-

tzuk, eskolako erreforma zela eta, erlijioa inposatuko ote zuten zen nire lagun baten kezka. “Primer viernesak” jarriko zizkigutek berriro martxa honetan”, zioen *Noaua!* aldizkarian. Nik ere ez nituela nahi “primer viernesak” esan nion, baina erlijio kulturaren alde nengoela.

Santo Tomas Lizeoa izan da gai honetan (beste askotan bezala) aitzindari. 1990 inguruan inkesta zabal bat egin zen guraso, ikasle ohi eta irakasleen artean gai honen gainean. Ia % 90ak erantzun zuen erlijio kultura ahalik eta zabalena eta sakonena eman behar zela gure ikastolan. Ordura arte, gutxi gehiago, erlijio konfesionala ematen zen.

Erljio kultura zabal hori gabe, erabateko babesik gabe gelditzen dira gure gaztetxoak mundu hau ulertzeko orduan. Historia, artea, ingurua... erreferentzia erlijiosoz josita daude. Axular, Orixte, Aita Donostia, J.S. Bach, Miguel Ángel, greziar kultura, Egiptoko piramideak, eta abar, eta abar...

Erljio kultura ikastorduan tolerantzian hezten saiatzen nintzen (batzuk bataiatuak eta sinestedunak ziren, besteak ez). Zentzu kritikoa ere lantzen nuen: erlijioaren izenean egin dira basakeria handienetakoak, baina baita solidaritate eta gertutasun ekingintza ederrenetakoak ere. Erljioaren perbertsiorik zitelenak botereari lotuak daude. Boterea bilatzen duenean, boterearekin elkartzen denean, erlijioarenak egin du. Erakunde boteretsu bilakatzen denean eta erakunde boteretsuekin aliatzen denean, orduan dena hondatzen du mamimamitik. Bigarren DBHn urtero *La Misión* pelikula botatzen nien, ikus zitzaitezen, hain zuzen, erlijioaren bi alderdi horiek. Sinetsia nago eskoletan erlijioa (kristautasuna nahiz besteak) erakustea gizartearentzat guztiz onuragarria dela. Ikasleak behar du gune bat gai honek sortzen dituen galderak, kezkak eta abarrik ager ditzan.

5- Gurasoen kolaborazio estu baten bila ibili izan naiz beti. Batez ere, gaztetxo gatazkatsu samarren aurrean aurkitzen nintzenean. Haurrak ez badu ikasten, interesik ez badu agertzen, bes-

teen lana oztopatzen badu, oro har, etxeko egoerak badu zerikusirik gelan gertatzen den horrekin. Gertatzen dena da, gaur egunkari batean irakurri dudana moduan, “irakaslearen bizkarrean jartzan dutela gurasoek haurraren heziketaren ardura edo erantzukizun osoa”. Tutoretza da unerik egokiena eta, behar bada, inoiz baino beharrezkoagoa gaur. Gurasoengan sumatu dudana akatsik handienetakoa zera da: ez dutela onartzen askotan beren haurraren porrota ikasketetan, harremanetan... Zuk esaten diozu guraso bati bere semeak porroa erretzen duela goizeko zortzietan eta ez dizu ametituko, ez dela posible esango dizu. Semearekin solidarizatzea errazagoa baita, agian, etxeko heziketan dagoen hutsunea aitortzea baino.

6- Autokritika egitera eraman behar gaitu gure irakaskintza eta heziketa lanak. Ikaslea jabetzen da askotan gure akatsez, erruez, aldrebeskeriez... eta gu enteratu ere ez. Zenbat hitz mingarri, keinu gogor, hizkera ulergaitz... eta gu jabetu ez. Orduan dator ikaslearen ekarpena, hau da, atentzioa deitzen digunean, gure jokabide oker hori salatzen digunean. Bere esateko modua ez da egokiena izango askotan, baina hezitzaileak erne egon behar du beti apaltasunez jasotzeko kexa eta errieta horiek. Haurrarendik erruz ikasten du irakasleak. Lizeotik jubilatu nintzenean, ehunka guraso eta ikasle nituen aurrean, ikasturte amaierako festa baitzen. Agurtzerakoan hauxe esan nien: “eskertzen dizuet bihotzetik, eman dizuedana baino anitz gehiago izan baita zuengandik jaso dudana”. Ikasleak jakin behar du bere kexu horiek, era positiboan eginda, jakina, oso onuragarriak direla irakaslearentzat.

Roger Garaudy filosofo handiaren hitzekin amaitu nahi nuke nire gogoeta-txo hau. Honela dio: “ikaslea, bere inguruarekin, sekulako etorkizun depositu bat da. Eta etorkizun hori proiektuz, esperantzaz eta libertatez betetako sorta da. Egokienak aukeratzen eta beste batzuk sortzen lagundu behar dio hezitzaileak” . ●

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoia euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

azaroa

berriak



Asko ikasita itzuli gara Reggio Emiliatik



Urriaren 11tik 15era Italia iparraldeko Reggio Emilia hirian egon gara bertako udal haur eskoletako esperientzia ezagutzen. Emilia Romagna herrialdean kokatzen da, Modena eta Parma hirien artean.

Bizipen polita, sakona eta interesgarria izan da parte hartu dugun lagunontzat. Euskal Herritik hezkuntza alorreko 69 profesional joan gara, eta gurekin etorri dira Galiziako, Valentziako eta Kataluniako talde bana. Guztira 149 pertsona iritziak eta begiradak trukatzan.

Bidaia pedagogiko honetan “Reggio Children” ezagutu dugu, hau da, haur eskolak eta horren inguruko hezkuntza proiektuak antolatzen eta kudeatzen dituen erakundea. Honen gunea “Loris Malaguzzi Nazioarteko Zentroa” da. Udalak berregituratutako eraikina da herrian ezaguna zen gazta fabrika zahar hau. Bertan erakusketak, auditorioak edota “Raggio di luce” tailerra daude.

Horrez gain, haur eskolak bertatik bertara ezagutzeko parada ere izan dugu. Bakoitzak 0-3 adin tarteko eta 3-6 adin

tarteko eskola bana ezagutu du, 11 haur eskolen artean aukeraturik: Bellelli, Faber, Rodari, Sole, Gabianella, Prampolini, Tondelli, Balducci, Allende, Freire eta Choreia. Haur eskola bakoitzak bere nortasuna eta berezitasunak ditu, baina guztiek jarraitzen dute Malaguzziren pedagogia eta elkarren artean koordinatuak daude.

Gertutik ezagutu ditugu, beraz, esperientzia honen osagai esanguratsuenetakoak: espazio zabal, anitz eta ederrak, funtzionatzeko eta kudeatzeko modua, hezitzaileen formazioaren berezitasunak, lantaldea eta berau antolatzeko modua, haurtzaroa ulertzeko modua, haurrekin duten harremana eta ikerketari ematen zaion lekua, dokumentazioa eta behaketa, proiektuen garapena, pedagogoen eta taileristaren funtzioa, komunitate osoaren parte hartzea...

Arratsalde batean, bi proiektu modu sakonean ezagutzeko abagunea izan genuen: 0-3 adin tartekoekin egindako “Colonnalbera” eta 3-6 adin tartekoekin




aurrera eramandako "Il dolce far niente".

Eskola eredu bano gehiago, hezkuntza komunitate baten esperientzia ezagutarazi digute italiarrek. Prozesu honetan herriak, herritarrek eta, batez ere bertako emakumeek, aparteko garrantzia izan dute.

Halaber, REMIDA sorkuntzarako erreziklaia zentroa ere ikusi genuen: industriako soberakinak berrerabiltzeko proiektu kulturala.

Reggio Emiliako eredu ezin da bere horretan ezarri hemen, hango herriari eta historiari lotuta baitago. Baina, filosofiak balio du eta hemengo egoerara egokitu daiteke. Burua ideiaz josia itzuli da bat baino gehiago, gogotsu, ikusitakoa praktikan jartzeko. Horretan laguntzeko asmoz, Reggio Emiliako haur eskolen inguruan monografikoa ateratzeko lanetan hasi gara Hik Hasin.



50 Jakin, GURE
URTE KULTURAREN
ALDIZKARIA

Jakin

haizea dakiten orriak

Harpidetu zaitetz eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 218092
Idatzi: jakin@jakingunea.com
Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro
Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

Sareanek, BiHeK eta EHIGEk beste curriculum proposamen aurkeztu dute

Derrigorrezko eskolaldirako curriculum sozialki eztabaidatzen ari den une honetan, Sarean, BiHe eta EHIGEk bere ekarpena egin dute: **Euskal Herri-rako curriculum**. Urriaren 19 eta 20an aurkeztu zuten proposamena Donostian egindako jardunaldietan.

EHIGeko lehendakari Imanol Zubizarretak hasiera ekitaldian esan zuenez, “ez dator beste proposamenak ordezkatu edo gutxiestera, ez da alternatiba bat”. Euren proposamen propioa egin nahi izan dute, sare publikoan dauzkaten kezkak hobeto jasota gertatzeko asmoz. Eta horixe da Hezkuntza Sailari aurkeztuko diotena, honek EAerako curriculum ofiziala egiterakoan aintzat hartuz, gainerako ekarpenekin batera. Izan ere, ikasturte amaierarako curriculum ofiziala Legebiltzarra onartu izatea espero da.

Euskal Herriko curriculum egiteko orain indarrean dauden curriculum ofizialekin oinarritu dira, eta horiek dauzkaten alderdi onak aprobetxatu dituzte. Aldi berean, Europako testuingurua aintzat hartu dute. Izan ere, 2010.



urterako Europa osoan gauzek bateratuta egon behar dute, eta tartean hezkuntza gaiek ere bai. Horregatik, Europari begira egindako curriculum ere bada.

Dokumentuak izaera soziala eta kulturala duten edukiak proposatzen ditu, derrigorrezko eskolatzeari amaitutakoan, ikasleek, Euskal Herriaren inguru soziokultural zein laboral konplexuan gizarerako, hezkuntza eta heziketa jasota izan dezaten. Era berean,

ikasle guztiei bermatu behar zaizkien hezkuntzako oinarritzko gaitasunak zein helburuak aurkezten dira, besteak beste: Euskal Herriko hizkuntza eta kultura modu esanguratsuan ikastea, beste hizkuntza koofizialekin eta eza-gutza unibertsalekin orekan aniztasunari eta kultur aniztasunari arreta jartzeari, balioetan zein herritartasunean oinarrituta hezteari, enplegarritasuna eta alfabetatze digitala.

Ez da sare publikoko guztien gustuko proposamena

Sare publikoko hainbat irakasle ez dute ongi ikusi Sareanek, BiHeK eta EHIGEk egin duten Euskal Herriko curriculum. “Badira 5 urte Euskal Herriko hainbat hezkuntza eragilek Euskal Curriculum osatzeko prozesua abiatu zutela. Prozesua guztiz irekia egon da parte hartu nahi izan duen ororentzat. Baina EHIGE, BiHe eta Sarean erakundeek, egitasmo honetan parte hartzeari muzin eginez, beste proposamen paralelo bat aurkeztu dute, eremu publikoko curriculum bakarra bailitzan, eztabaidari ateak itxiz eta irakasleriaren iritzia bermatu gabe” adierazi dute.

Era berean, zera salatzen dute: “EHIGE, BiHe eta Sareanek ez dituzte sare publikoko sentsibilitate guztiak barneratzen. Irakasle asko eta asko ez gara eurekin identifikatuak sentitzen; besteak beste, bata gurasoen elkarrekin delako eta beste biak zuzendariak. Horrez gain, hiru elkarte horien curriculum proposamenak abiapuntu eta helburua Euskal Autonomia Erkidegoa du, eta ez Euskal Herria”.

Gauzak horrela, Hezkuntza Sailari eremu publikoko ikastetxeetan Euskal Curriculumaren eztabaida bultzatzea eskatzen diote, presaren aitzakian curriculum autonomistan jauzi gabe eta erakundeekin elkartuz.

Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa

Hezkuntzako hainbat esparrutako kidek aurkeztu dute eta udaberriko biltzarrean izango du amaiera



Hezkuntzako hainbat esparrutako kidek **Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa** aurkeztu dute. Euskal hezkuntza sistema nazionalaren inguruko hausnarketa egiten hasi ziren, eta

aipatu akordioa egitera iritsi dira. Horixe aurkeztu zuten urriaren 21ean Donostian.

Hemendik aurrera eta hurrengo hilabeteetan, akordioa abiapuntutat hartuta, Euskal Herriak behar duen hezkuntzari buruzko eztabaida soziala bultzatu nahi dute.

Akordioak hiru zati nagusi ditu: euskal herritarren hezkuntza eskubi-deak, hezkuntza publikoaren kontzeptua, eta hezigune bakoitzean hezkuntza zerbitzu publikorantz eman daitezkeen urrats proposamenak. Herri gisa

behar dugun hezkuntza eztabaidatzeko eta adosteko abiapuntuak dira, hainbat eragilek adostu dituztenak eta beste hainbaten atxikimendua jasotzen ari direnak. Eta hemendik aurrera beste askoren ekarpenak biltzea espero dute.

Jasotzen diren ekarpen guztiekin udaberriko biltzarra egingo dute, bertan akordio zabalagoa lortzeko asmoz.

Akordioa bera eskuratzeko eta ekarpenak egiteko helbide honetara jo daiteke:

**ekarpengunea@
eztabaidagunea.org**



VI. Jardunaldiak
2006ko azaroak 23.
LANDAKO.DURANGO

www.topagunea.org/jardunaldiak

Antolatzailea



Topagunea
Euskara Elkarteen Federazioa

Babesleak



Laguntzaileak




argitalpenak



Aisia Biziz

Urtxintxa aisialdi eskola

.Urtxintxa aisialdi eskolaren ale berri honetan, "haurrak eta hiria" gaia jorratzen da. Hiriko espazioak antolatze-ko moduan eta hauen erabileran haurren parte-hartzeak eta ikuspegia duen garrantzia jorratzen du. Horrez gain, aisialdia eta euskararen inguruan maingurua, Tago eta Galiziar elkarteak, Karlos Yusteren gogoeta eta beste hainbat baliabiderekin dator. •




Basotxo eta kirolak

A. Ibarra Basañez

EREIN

Basotxo lagun magikoarekin, Euskal Herriko hainbat kirol eta kirolari mota ezagutzeko aukera dugu: atletismoa, harri jasotzailea, estropadak, oskola, pilota, sokatira, aizkolaria, triatloia, txinga, bola-jokoa, txirringularitza, idi-probak eta ahari-talka. Graziaz errepasatzen ditu guztiak, umore puntua ere erabiliz. •




Korri, Xalto ta Brinko Liburutegian

Mikel Susperregi

IXERKA! IPUIN BILDUMA

Lezoko hiru pailazoak liburutegira doaz herriko haurrei ipuinak kontatze-za. Hiru ipuin kontatuko dituzte: "Benantzio Eskulaingo artzaia", "Trigo eta Lopez marinelen abentura" eta "Atzekoateko katu beltza". Herriko abenturak, freskotasunez narratuak, Ixerka! bildumaren 9. alean jasotzen dira. •




Matxinsaltoaen belarriak

Unai Elorriaga

ELKAR

Tomasek gauza interesgarri asko kontatzen dizkigu liburu honetan, aitonari, osaba-izebei eta Iñes lehengusinari entzundakoak, batez ere. Kafesnea prestatzeko errezetak emango dizkigu batean, errugbia nola jokatzen den hurrena... Irakurlea pertsonaia deskubrituz joango da orriz orri. Hitzak Eider Eibarren marrazkiek koloretzatzen dituzte. •



Zientzia eta natura: hogeita sei istorio

Poincarè zientzia taldea

GAIK

Zientzia eta Natura gaiak atseginak eta erakargarriak izan daitezkeela baieztatzen dator istorio bilduma hau: zakurraren jatorria eta eboluzioa, nukleo atomikoen forma bitxiak, Carlos Castaneda eta xamanismoa, zientzia eta biblia, denboraren historia, sukaldetako gatzaren sekretuak, lurrikarak... Gustu adina aukera. •



Egiptoarrak espazioan 2 Faraoiaren garagardoa

Agribau eta Garavano

SAURE

Egiptoarrak espazioan bildumaren bigarren komiki liburua da honakoa. Unibertsoan garagardoen arteko lehia-kortasunak gatazka sortu du, eta horretarako, bi misiolari denboran bidaiatu eta Egipto zaharrera bertaratu dira, garagardo goxoaren errezeta bereziaren bila. Baina kontuz ibili beharko duzue bideko hainbat ezustekorekin. •

... goza nazazu gehiago

Irakasleak asko egin dezake



**Helena Baraibar eta
Kristina Boan**
Ikastolen Elkarte

Aurreko artikuluan adierazi moduan, euskararen indarberritzean eragiteko hizkuntzaren erabilerekin zerikusia duten esparru guztiei erreparatzea ezinbestekoa da. Oraingo honetan, eremu kurrikularrean subjektu eragilea den **irakaslea** hartuko dugu aintzat eta aztertuko bere irakasle lanetan euskararen indarberritzean eraginkorra izateko (erabilera eta kalitatea) zer nolako irizpideen arabera jokatu behar duen.

Honakogalderari erantzuten ahaleginduko gara. Zer egin dezake irakasleak euskara indarberritzeko ahaleginean? Euskarara erakarri irakasleak, euskararekin liluratu. Irudiaren gizaaldian bizigaren honetan, komunikazioaren aroan, irakasleak ezagutzaren igorle huts izatetik, zirikatzaille izatera pasa behar du.

Eta nola egiten da hori? Horretarako, adin tarte desberdineko ikasleari erabilgarri eta motibagarri zaizkion estrategiak, zeinak sinesgarriak behar duten, jarri behar zaizkio eskura. Ikaslearen interesgunea errespetatuzetik hasi behar dugu irakaslearen interesgune bihurtu arte. Garbi dago ikasle kopuru handi batentzat euskara ez dela interesgunea, ez dagoela modan, ez baita moderno, euskara antzinakoa da, tradizioa besterik ez da. Beraz, oker gabiltza euskararen erreferentea usadioari, iraganari soilik lotzen badiogu. Gaurkotan lotu behar zaio. Egungo gizartean zirkulazioan egon daitekeela eta egon dagoela zenbait gunetan erakutsi behar dugu. Gure irakasleek gaztelania aukeratuko dute baldin eta euskara bizitza egoera anitzetarako erabilgarri ere badela sinestarazten ez badiegu. Ezin gara konformatu euskaraz irakastearekin, irakasleek euskara erabiltzea hartu behar dugu helburu, horretarako. Helburu dugun eginkizun horrek berak markatuko dizkio irakasleari bere jokoaren arauak:

- **Lehenengoz**, gela barruko jardun akademikoa zaindu beharko du. Batetik, hizkuntz eredu onaren jabe izan behar du. Alegia, hizkuntza formala eta ez-formala menperatu eta hizkuntza egokia eta eraginkorra erabil-

tzeko gai izan. Bestetik, ikasleen hizkuntza erabilera elikatu behar du, honetarako material kurrikularren ildo metodologikoari erreparatu eta gauzatzeko didaktikoa zaindu. Denbora-pasatzat hartu izan diren zenbait jardunbide eskolako egiteko ere bihurtu behar ditugu: kantuan aritzea, bertsoan aritzea, antzerkia egitea, komunikatzeko kode anitzak lantzea (txat-a, sms-ak,...), etab.

- **Bigarrenkoz**, ohartu curriculum mailako jarduna bezain inportantea dela beste edozein jardun osagarri, zehar lefro modura txertatua izan litekeena, aisiarekin zerikusia izan dezakeena (jolasaldia, txangoak, ospakizunak,...) edo beste. Izan ere, gune horien testuinguruan sortzen baitira egiazko harremanak ikasleen artean eta irakasle-ikasle artean. Beraz, hizkuntzari ematen zaion erabilera funtzionala da, eta honenbestez, sinesgarria. Hori horrela izan dadin, gela barrutik atera behar ditugu bestelako hedapena emanaz goian aipatu ditugun ez ohiko jardunbideak. Esan nahi da, eskola barruan nahiz gizartera begira antolatutako emanaldi, lehiaketa eta edonolako ospakizunek aukera ezin hobea eskaintzen digutela hizkuntzaren erabilera funtzional, praktikoa eta motibagarri honetarako.



Arantxa ITURBE

IRRATI-ESATARIA

Ama naiz. Hezkuntza esan eta bote-prontoan hasitako alfabeto partikularrean lehenasuna duen eginkizuna. Eskolak hasi aurretik. Eskolaz gain. Eskolaren gainetik.

Belarrondokoa: politikoki zuzen eta itxurakerian bikain den gizarte honetan min egiten duen hitza. Alfabetotik kenduko nuke benetan pentsatuko ez banu batek baino gehiagok merezi duela bakarren bat.

Duda: betikoa; betirakoa: zertan huts egiten ari gara?

Errespetoa: garai bateko hitza dirudi. Garai batean erabiltzen genuelako izango da.

Futbola: ez da munduko gauzarik garrantzitsuen, baina norbaitek asmatu beharko du ez dela munduko gauzarik garrantzitsuen frogatzeko modua.

Boteprontoko alfabetoa

Gurasoak: beharbada hezkuntzaren makinariak hezi beharrekoak.

Hautaketa: eskolarena. Gustura egingo nuke zergatien ikerketa.

Irakasleak: ezagun bati beti irakasle txarra egokitzen zaio. Ez zaio burutik pasatzen beharbada umea izan litekeela arazo.

Jakin-mina: niri piztu zidaten. Ez dakit nola, baina lortu zuten.

Kalitatea eta kaka zaharra: biak letra berarekin. Ez kalitateak kezkatzen ez nauelako. Kalitatea gaur egun ulertzeko erak nazkatzen nauelako baizik.

Lagunak: eskolak eman didan aberastasunik preziatuena.

Matematika: ez ginen lagun onak izan. Orain umearen ariketekin jolasean aritzen naiz. Zerbait aldatu izango da.

Notak: ez da pertsonak neurtzeko lanabes erabilgarria.

Orbain bat baino gehiago ezagutu dut. Ez nire larruan. Baina sakonak dira zenbaitengan.

Patio ordua: gauza batzuk ez dira batere aldatu. Txikiek beti handientokiarekin ametsetan. Handi bihurtzen diren arte. Eta txikiei tokia kendu.

Quorum: ez zitzaidan beste hitzik

bururatzen Qz. Eta ez erraz lortzen delako erabakiak hartzeko baldin bada.

Robotak: zer ez nukeen nahi hezkuntzaren helburu.

Sasijakitun gehiegi biltzen dituen gaia. Denok izan gara ikasle; gehiegi, guraso.

Taldea: kurioso da ikustea zenbat indar xahutzen dugun talde bateko kide izateko ahaleginean, behin lortu ondoren taldean desberdinak garela erakusteko saiakerekin hasi arte.

Umea: zorionsu da. Oraingo. Hezkuntza sistemak garaipen bezala kontabilizatu beharko lituzke ume zoriontsuak.

Vokazioa: duen kutsu erlijiosoagatik ez balitz, beharrezkoa joko nuke zenbait lanbidetan: irakaskuntzan, esate baterako.

Xaxatu: noiz edo noiz saiatzen naiz ingurukoekin. Ingurua laburra da, ordea. Gero eta gutxiagotan xaxatzen ditut bazterrak. Eta gutxiago hezkuntzarekin zerikusia duten kontuekin.

Zentzugabekeria litzateke alfabeto honek zerbaitetarako balio dezakeela sinistea. Hitz guztiak dira aldagarriak. Asko aldatuko nituzke berriro hasiko banintz.



Mundua 1.000 pertsonako herria izango balitz, 5 soldatu, mediku 1 eta 7 irakasle egongo liriteke. Herriaren urteko gastu orokorraren % 6 arlo militarrean gastatuko litzateke, % 5,3 hezkuntzan eta % 4,4 osasunean.

Iturria: Donella H. Meadows, Sustainability Institute



hezkuntza plazara!

Nazio Mintegiak

www.euskaleskola.org



EHIN ABENTURARI KOSMODISEA

ZIBERESPAZIOKO ABENTURA, KULTURA
EKINTZAILEAREN ETA DIGITALAREN
BALIOAK SUSTATZERA ZUZENDUA LEHEN
HEZKUNTZAN, DBHN, BATXILERGOAN
ETA HEZIKETA ZIKLOETAN.

**OSATU ZURE TALDEA
ETA PARTE HARTU!**



INFORMAZIOA :

www.kosmodisea.net

900 840 842

KOSMODISEA

GIPUZKOA
berrikuntza lurraldea
territorio de innovación
www.gipuzkoaberrikuntza.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento

—REN EKIMENA DA